



BARREN

TOKIKOM

Hiru hautagai, aulki bakarrerako





Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

BARREN

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

IKASBAI
AKADEMIA
IKASGO
ACADEMY

Basarte 13, behe - Elgoibar
akademiaelgoibar@gmail.com

AURREMATRIKULA EPEA

ZABALIK

2019-2020

667 261 248

(Leira)

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK

- LH ETA DBH
- GAI GUZTIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HH 0-1eko matrikulazio aldia zabalik **maiatzaren 20tik 31ra**

HH 0koak (2019an jaiotakoak) irailean eta urrian hasteko

HH 1ekoak (2018an jaiotakoak) irailean hasteko

elgoibar ikastola



www.elgoibarikastola.eus

943 744441



IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen-bilera **maiatzaren 20an, 18:00etan**



Bisita gaitzazu!

ALTZARI BILDUMA BERRIA!

Aukera zabala

- Neurrira egindako altzariak
- Gazte-logelak
- Logelak
- Zure gustora diseinatutako kanapeak, alboko kaxoiekin, oinetakoentzako txokoarekin.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak



K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19, behe - Elgoibar

Informazioa eskatzeko, deitu:

943 743 044 edo 653 825 606

UDAKO INGELES IKASTAROAK

Uztailaren 1tik 26ra

Cambridgeko unibertsitatearen azterketak prestatzeko ikastaro praktikoak (KET, PET, FCE, eta CAE)

GOIZEZ!
TALDEAK
(6-8 ikaslekoak)



Cambridge Unibertsitateko azterketarako batzordeko kidea ES438

Denetarik eskolak: Haur, gazte eta helduak.

2019-2020 ikasturterako aurrematrikula epea zabalik

- ◆ Ingelesa, Frantsesa eta Alemana.
- ◆ Cambridgeko azterketak prestatzeko ikastaro praktikoak.
- ◆ Denetarik eskolak: Haur, gazte eta helduentzako.
- ◆ Laguntza eskolak: Maila guztiak eta talde txikitan.



Elkarrekin Podemosek aurkeztu ditu Udal eta Foru Hauteskundeetarako hautagaiak

Elkarrekin Podemos alderdiak eguaztenean egin zuen Udal eta Foru Hauteskundeetarako hautagaizten aurkezpena Elgoibarren. Kalegoen plazan batu zituzten Gipuzkoako Foru Aldundirako hautagaiak eta Elgoibarko Udalerakoak. Batetik, Marivi Eizaguirre, Eukene Arana, Yahcov Ruiz eta Tixixara Guanche Aldundirako hautagaiak izan ziren, eta Udalerako aurkeztu duten zerrendatik Evaristo Rodriguez alkategaia, Silvia Montes eta Oscar Ortiz de Lejarazu. Besteak beste, Udalgintzaz eta feminismoaz berba egin zuten.



PSE-EE alderdiak larrosak banatu ditu merkadilloan



Ohitura duen legez, PSE-EE alderdiak osteguneko merkadilloa aprobetxatu zuen elgoibartarrei botoa eskatzeko. Fernando Suarez alkategaia eta Rafaela Romero eta Susana Corcuera legebiltzarkideek larrosak banatu zituzten.

Ez da mahai-inguru politikorik egongo

Elgoibarko EHBilduk mahai-inguru politikoa egiteko proposamena egin die Udal Hauteskundeetan parte hartuko duten indar politiko guztiei, uste dutelako herritarrek aukera izan behar dutela alderdi bakoitzaren proposamenak ezagutzeko eta kontrastatzeko. EAjk, ezezkoa eman dio proposamen horri, eta prentsaurrekoa eman zuen barixakuan ezezko horren arrazoiak argitzeko. EAjko arduradunek esan zutenenez, beraientzat hauteskundeak legealdien arteko trantsizioa dira, eta euren ustez, debateak legealdi osoan zehar ematen dira, batzorde eta plenoetan. EAjk erantzun zuen hauteskunde kanpaina diseinatuta zutela ordurako eta debate politikoa ez zegoela euren planetan. EAjren erabakia "penaz" hartu du EHBilduk. Gainerako indar politikoez ez dute ezer adierazi gai honen inguruan.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak atalean adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etzegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Mendaroko alkategaien aurkezpena

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak atzean lagata, Hego Euskal Herrian maiatzaren 26an egingo diren Udal eta Foru Hauteskundeei begira jarri gara (Europako Parlamenturako hauteskundeak ere egun berean izango dira). Udal hauteskundeei erreparatuko diegu bereziki BARRENEN, eta bi zenbaki berezitan emango dugu Elgoibarko eta Mendaroko hautagaien eta zerrenden berri. Esku artean duzuen hau da lehenengoa, Mendarori eskainitakoa, eta gaur zortzi argitaratuko dugu bigarrena, Elgoibarri dagokiona.

Mendaron, hiru alderdik aurkeztu dituzte zerrendak: EHBilduk, EAJk eta PSE-EEK, eta hurrenez hurren, Enetz Ezenarro, Iñaki Arregi eta Mari Jose Telleria dira haien zerrendaburuak. Bosna orrialde eskaini dizkiegu hiru alkategaiei. Bi orritara eman dugu haien perfila, eta gehienez, 12.000 karaktere, hiru orrialde, eskaini



dizkiegu guk idatziz egindako galderei idatziz erantzuteko. Honez gain, herritarrei galderak bidaltzeko aukera ere zabaldu genien Interneten duela hamabost egun. Asteazken eguerdira arteko epea jarri genuen galderak bidaltzeko, eta asteazken arratsaldean bertan bidali geniz-

kien alkategaiei, erantzun zitzaten. Erantzunak bideoan jaso ditugu eta luze gabe zabalduko ditugu gure webgunean. Alkategai bakoitzari gehienez hamar minutuko tartea eman diogu, nahi dituen galderei erantzun eta esan nahiko lukeen beste edozer esateko.

HAUTESKUNDE KANPAINA MENDARON

Hauteskunde programa aurkezteko jende aurreko ekitaldia egin du Mendaroko EAJk

Hauteskunde kanpainako ekitaldia egin zuen martitzenean EAJk Mendaron. Iñaki Arregi alkategaiak hauteskunde programa eta zerrendakideak aurkeztu zituen aurrena, eta Joseba Egibar Gipuzkoako Buru Batzarreko presidentek hartu zuen ondoren hitza. Arregik esan zuen Mendaro "biziago" baten alde egiteko gogoz aurkeztzen dela, eta Mendaro "lotarako herri huts" izan ez dadin, beharrezko diren azpiegiturak eta zerbitzuak sustatuko dituela agindu zuen. Egibarrek, berriz, eskerrak eman zien zerrendakide guztiei hartutako konpromisoagatik eta nabarmendu zuen EAJk eskaintzen duela EHBildu agintean izan den lekuetan bizi izan den "motelaldiarri" aurre egiteko aukera.



Enetz Ezenarro

EHBilduren Mendaroko alkategaiari elkarrizketa

“Mendaron bizi nahi dugu, eta ongi. Herri bizi eta solidario bat bultzatuko dugu”

1. Zein lehentasun ikusten dituzu Mendaron?

Alor sozialari, kulturalari eta ekonomikoari garrantzia berezia eman nahi diogu. Azken urteetan asko aldatu da Mendaro. Asko hazi da, esaterako. Horrek onura batzuk dakarzkio herriari, besteak beste, laurogeitamargarren hamarkadako joera demografiko negatiboari buelta ematea. Baina arrisku batzuk ere baditu. Eta horietako bat da jende askorentzat, Mendaro, loleku huts bilakatzearena, eta beren bizimodua beste herri batzuetan egitea. Guk Mendaron bizi nahi dugu, eta ongi bizi gainera. Eta horretarako herri bizi eta solidario bat bultzatzea garrantzitsua da. Beharrezkoa da sektore ekonomiko guztiak zaintzea eta aurrera begira Mendaro ekonomikoki bideragarri egingo duten neurriak planifikatzea. Baina ez da dena lana izango. Herriko talde eta elkar-teen osasuna zaindu, berriak sustatu eta denen arteko koordinazio sare eraginkor bat eratu nahi genuke. Denon artean programazio soziokultural oparo bat eskaintzeko. Jendearen inplikazio eta sarete soziala sendotzeko. Jendeak herrian geratzeko aukera mairago egiteko. Horrez gain lehentasunezkoa ikusten dugu euskararen erabilera sustatzea eta Mendaroko kirolaren plangintza bat egin eta aurrera eramatea.

2. Zer izango da alkatetza lortu eta egingo duzun lehenengo gauza? Zein alorretan jarriko ditu indarrak zure alderdiak legegintzaldi berri honetan?

Hauteskundearen ostean, esaterako, herriko jaien antolaketa kontuei heldu beharko diegu berehala. Gero badira aurreko legegintzalditik datozen kontuak eta horiek bideratzen ere ahaleginduko gara: Azpilgoetan hasita dauden urbanizazio lanak amaitu eta frontoi osteko lokaletan indoor kirolerako (gimnasia, aerobic...) espazio bat prestatu eta martxan jarri, adibidez.

Epe luzeagoan, lehen aipatu ditudan kontuetan jarriko ditugu indarrak, batez ere. Agian, aipatu gabe geratu zaizkit, hirigintzari eta ingurumenari lotutako zenbait kontu. Guk ez dugu proiektu handietan oinarritutako hirigintzan sinisten. Nahiago dugu dagoena zaindu, berrerabili eta beharrezkoa izan ezker aldaketa puntualak egin. Hirigintzan hartu beharreko neurriak lehen aipatutako Mendaro bizi horri lagunduko diote. Herrigunea trinkotu, kalitate



handiko espazio publikoak bilatu, mugikortasun jasangarria sustatu... oinezkoentzako, umeentzako, adinekoentzako Mendaro bat, ingurumenari lotutako balioetan oinarrituta. Ez gaude alferrik natur ingurune paregabe batean kokatuak. Ingurunearen zaintzan balio erantsi garrantzitsua aurkitu dezake Mendarok, bere ezaugarri identitario nagusi bilakatu nahi genukeena.

3. Zer egingo duzu Mendaroren herri izaera sendotzeko? Zer auzoen arteko kohesioa lantzeko?

Ezinbestekoa iruditzen zaigu herri identitate sendo bat bultzatzea. Harrokeriarik ez dugu nahi, baina bai harrotasuna. Gu ere bagara nor. Horretarako kirol eta kultur taldeak sustatuko ditugu; euskararen normalizazioa bultzatuko dugu; geure historia eta herri izaera aztertze eta ezagutzea emateko lanak garatzeko beka bat sortuko dugu; argazki eta dokumentu zaharren herri funts bat eratuko dugu; gure ondare natural eta historikoaren inbentarioa egingo dugu, eta hau zaintzeko neurriak hartu; Mendaroko bizkotxoei etorkizuna bilatuko diegu; Mendaroren irudia espeleologiarekin eta kalitatezko natur balio eta jarduerekin lotzeko neurriak hartuko ditugu...

Auzoen arteko kohesioak Mendaroren garapen orekatuago bat emango digu. Neurri urbanistiko berriak hartuko ditugu Mendarozabal-Herriko Enparantza-Azpilgoeta oinezko ardatza gure

herriaren bizitza soziokulturalaren zentro bilakatzeko. Horretarako ardatz horretako espazio publikoak egokituko ditugu jendearen beharrianak kontutan hartuta. Herriko gainontzeko lekuak ahaztu gabe. Auzo ezberdinen izaera errespetatuz eta beren garapena bilatuz.

4. Euskararen arnagune izateari laga dio Mendarok. Euskararen erabileraren inguruko datuak apalduz doaz urtetik urtera, eta esparru formaletan ere igarrita daude gainbehera, lkastolatik bertatik ohararazi dutenez. Zer duzue honen inguruan esateko? Zer nolako hizkuntza-politika landuko duzue?

2017ko azaroan eman ziren ezagutzera UEMAK egindako ikerketa soziolinguistikoaren emaitzak. Kalean zabilzalarik igaritzen diozu gaztelera euskara baino dexente gehiago entzuten dela gurean ere. Aipatutako datuek modu gordinean erakusten dute, azken hamarkadetan Mendaron euskarak izan duen bilakaera. Arduratuta gaude kontu honekin. Datuak bereziki txarrak dira gaztetxoaren artean. Honen aurrean zer egin? Galdera horri erantzun nahia zegoen duela bi urte Mendaro UEMAn sartzeko erabakia hartu zenean. Beste herrietan egiten dena ezagutu eta haien esperientziaz baliatu ahal izatea Mendaron ere neurri eraginkorrak (eta ez soilik "folklorikoak") hartzeko. Hortik sortu zen herrian euskara talde bat. Besteak beste Mendaron euskaraldia martxan jarri zuena. Talde hori indartzea interesgarria litzateke, instituzioetatik soilik, herritarren inplikaziorik gabe, nekez irabaz daitezkeen borroka delako hau. UEMAREN gidaritzapean herritarren hizkuntza ohituretan eragiteko tresna desberdinak martxan jarriko ditugu. Euskara teknikari bat hartzea aztertuko dugu.

5. Mendaroko herrigunera sartzeko ate bakarra dago: Zubi Berria, eta bada herritarren kezka bat. 2009an, EAJren agintaldian, bigarren zubi bat egiteko proiektua aurkeztu zuen Udalak. Programatik kendu zuen EAJk berak hurrengo lege-gintzaldian, eta asmoen artean aipatu zuen EHBilduk 2011n, alkatetza lortu berritan, baina ez da proiekturik gauzatu. Honen inguruko ekinbiderik aurreikusten du zuen alderdiak?

Egia da Deba edo Elgoibartik Garagartza edo Mendarozabalera (nahiz eskualdeko Ospitalera) ematen duen sarrera bakarra zubi hori dela. Baina Plaza auzoa eta Azpilgoeta ere Mendaroko parte dira, Azpilgoetan ere bada herrigunerik, hala deitu nahi badiozu. Indartu beharrekoa dena gainera, gure ustez. Hori esanda ez nuke galdera saihestu nahi.

Hasteko, esan beharra dago, GI-3821 errepideko zubia Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela. Bildu alkatetzan egon den azken bi lege-gintzaldietan ugariak izan dira Mendaroko alkateak Foru Aldundira egin dituen bisitak, gaiak duen garrantziak hala eskatuta. 2018ko abenduan Udalak Foru Aldunditik jaso-

tako eskutitz batean argi aipatzen da orain arte planteatu diren proiektuak, eta zuk ondo azaldu dituzunak, teknikoki edo ekonomikoki bideraezinak izan direla. Horrez gain ondokoa ere aipatzen da: 2019an zehar, Aldundiak errepide sareko egiturak ikuskatzeko daukan kontratuaren baitan, zubi horren ebaluazio osoa egingo dela. Azterketa hori egin eta Foru Aldundiak gaiaren inguruan duen iritzia jakin arte ez da erraza izango arazoaren soluzioa zein izango den aurreratzea.

Mendaroko EHBildutik ikusten dugu dagoen lekuan bertan zubia zabaltzea edo dagoenari lotuta eta honekiko paraleloan beste zubi bat egitea izan daitekeela kostu txikienarekin arazoa konpontzeko modua. Trafiko fluxuaren norabideak aldatu gabe eta errepide nahiz urbanizazio koste berriak ekidinez. Alde batetik, herri barrurako trafikoa joango litzateke, eta beste aldetik, ospitale, poligono eta baserrietarako trafikoa. Baina Foru Aldundiarena da eskumena eta Foru Aldundiaren iritzia baldintzatuko du azkenean emango den soluzioa. Gure aldetik prestutasun osoa daukagu Foru Aldundiko Azpiegituren Sailari lehenbailehen gai honi irtenbide bideragarri bat aurkitzeko eskatzen jarraitzeko.

6. Zer da herrigintza zuretzat?

Herria egitea esan nahi du herrigintzak. Historikoki bakarka egin ezin izan dituen lanak egiteko elkartu eta antolatu dira pertsonak. Eta askoz hobeto bizi gaitzeko elkarri lagunduz. Hobeto bizitzeko antolatzen gara komunitateetan, herrietan. Herrigintzak esan nahi du komunitatea egituratzea eta zaintzea. Komunitateko kideen arteko erlazioak sendotzea. Antolatutako herriak indar handia baitauka. Indar handia, besteak beste, injustizien aurrean erantzun sendoak emateko. Inor atzean utzi gabe aurrera egiteko. Izan ere, eta ikuspegi "norberzentrista" batetik begiratuta ere, ingurukoak ondo bizitzeak, norbera hobeto bizitzea dakar. Denok dakigu hau hala dela, baina ahaztu egiten dugu sarriegi. Jarduera ekonomikoek, jarduera sozialek, jarduera kulturek herria estrukturatzen dute. Herria sendotzen dute. Herria batzen dute. Herria egiten dute. Guzti hori bultzatzea da herrigintza.

8. Komertzio txikiak bizia ematen dio herriari. Dendak itxi dituzte azkeneko urteotan. Zer egingo du zure alderdiak herriko merkataritzari eta ostalaritzari eusteko?

Bizi dugun garaia ezaugarri bihurtu da dagoeneko denda eta taberna txikiak itxtearena. Ez da leku jakin bateko problema. Problema orokortua da eta jendearen bizi ohiturei lotua dago.

Problema global honen aurrean, jakina, udalaxe txiki baten ahalmena mugatua da. Baina garbi daukagu gauza asko egin daitezkeela, tokian tokikoak, egoera iraultzeko. Eta egin egingo di-

"Beharrezkoa da sektore ekonomiko guztiak zaintzea eta herria ekonomikoki bideragarri egingo duten neurriak planifikatzea"



“Aurrerantzean ere dauzkagun arazoak konpondu eta hobeto bizitzeko balioko duten gauzetan gastatuko dugu dirua”

tugu. Arestian aipatutako herri izaera eta kohesioa lortzeko garrantzitsua da komertzio txiki eta ostalaritza sare indartsu bat izatea herrian, gure herriaren taimainara egokitutakoa, eta herritarrek bizitza herrian bertan egitera gonbidatuko dituen. Dinamika soziokultural aberats bat izatea eta komertzio eta ostalaritza sare indartsu bat izatea txan-

pon beraren bi alderdi baino ez dira. Biak bultzatuko ditugu. Ildo berean garrantzitsua iruditzen zaigu herrian komertzio txiki eta ostalaritza establezimenduen elkarte bat sortzea, jarduera komertziala eta zerbitzuetakoa herriko bizitza sozialarekin lotzeko balioko lukeena. Dinamizazio turistikorako plan bat ere egingo dugu. Badaukagu hor landu gabeko potentzial bat. Eta zerbitzuen alorrean egon daitezkeen hutsuneak detektatzeko azterketa bat ere egingo dugu, negozio berrien sorrera laguntzeko.

9. Zerrendak osatzeko zailtasun agerikoak izan dituzte alderdiak. Alkatea dago gaur liberatuta. Zer planteamendu dakar zure alderdiak legegintzaldi honetarako?

Egia da, bai. Ez da erraza udalerrietako hauteskundeetara aurkezteko zerrendak osatzea. Baina hau ere ez da soilik Mendaroko arazoa. Nahiko orokortua dagoela esango nuke. Jendeak herriko kontuetan gehiago parte hartzea nahiko genuke. Eta horretan ahaleginduko gara.

Liberazioei dagokienean gure planteamendua orain arte bezala jarraitzea da. Alkatea izango da liberatu (osoa edo partziala) bakarra. Udaletxeko jardueretan eta diru publikoaren kudeaketan gardentasun osoz jokatzeko konpromiso irmoa dugu.

10. Badira gai batzuk urtez urte errepikatzen direnak, baina gauzatzen ez direnak. Azpilgoetako autobus geltokiarena da bat. Zein lehentasun du gai honek zuentzat?

Zubiaren kasuan bezala, lehentasun handia du gai honek ere guretzat, herritarren egunerokoan arrisku handiko egoeren iturri den heinean. Azpilgoetan nahiz Plaza auzoan oso arriskutsua da Debarako noranzkoan autobusa hartzea. Teknikoki konponbide errazik ez duten arazoak direla esan izan zaigu Foru Aldunditik. Aldundiko sail ezberdinek parte hartzen dute, aurrekontuak mugatuak izaten dira, eta egin beharko lirakeen lanak handiak dira. Hala ere, Foru Aldundiarekin egoera aztertu eta soluzio bideragarriak proposatzen jarraitzeko asmoa daukagu.

10. Udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua da. Zertan inbertituko duzue dirua?

Kudeaketa arduratsua egin du EHBilduk Mendaroko udalarekin agintzen egon den zortzi urteetan. Ez dira ekonomikoki urte errazak izan 2011tik 2019rakoak eta ardura handia izan da diru publikoa gastatzeko lehentasunak markatzea. Aurrerantzean ere dauzkagun arazoak konpondu eta hobeto bizitzeko balioko duten gauzetan gastatuko dugu dirua, handikeriatan erori gabe. Esan dugun bezala, gauza hauek ez daukate zertan materialak

edo ikusgarriak izan.

Mendaron sektore ekonomiko desberdinak osasuntsu egoteko gastatuko dugu dirua. Gizarte zerbitzuetako partidak igoko ditugu, sufrizten dutenen beharraznei erantzuteko. Genero berdintasun politikak gure eskumeneko alor guztietan inplementatzen; Mendaroko gazteak herrian bizi ahal izateko etxebizitza politika

jasangarri bat abian jartzen; kirol eta kultur elkarteak eta ekitaldiak indartzen eta berriak sortzen; dinamika soziokultural sendo bat bideratzen; Mendaroren herri izaera sendotzen; gure hizkuntza normalizatzen; gure natur ingurunea zaintzen eta ezagutarazten; energia berriztagarriei gure herrian bidea zabaltzen; mendarorrek kirola egiteko aukerak eta azpiegiturak areagotzen; herri orekatuago bat lortzen; urtez urte herriko jai parte hartzaile eta interesgarriak antolatzen... guzti horretan inbertituko dugu dirua. Eta nola ez, Foru Aldundiarekin batera, zubiko nahiz autobus geltokietako arazoak konpontzen ere bai.

11. 2009an sortu zuen estreinako Berdintasun Plana Udalak, bi urterako. Gabezi edo hobetu beharreko hainbat puntu jaso zituzten plan hartan, besteak beste: ginekologia eta pediatria zerbitzuak herrian sendotu eta egonkortu beharra, kaleko izendegian emakume-izen gutxiegi izatea, genero-ikuspegia landu beharra Udalean, genero rolen eta estereotipoen inguruko kontzientziazio saioen premia... 2019an gaude, herriaren ezaugarriak aldatu dira (besteak beste, askotarikoagoa da gaur), baina haitako gabezi asko gabezi dira gaur ere. Zein politika sustatuko duzue alkatetza lortuz gero?

Egia da orain arte ez dela udaletxetik gauza handiegirik egin berdintasunaren arloan. Eta egia da baita ere Mendaroko feministak izugarritzko lana egiten ari direla zentzu horretan. Benetan eskertu nahi genieke urte hauetan egindako guztia. Aurrerantzean gai honekin konpromiso sendo bat hartzeko asmoa da gurea. Bai herriko talde feministek antolatutako ekintza desberdinetan parte hartuz eta baita hauekin elkarlanean beste hainbat ekintzaren sustatzaile izanez ere.

Mendaro herri txiki bat da, eta zaila da udaletxean berdintasun teknikari bat izatea. Baina badira hainbat baliabide gai honetan lan txukun bat egiteko: teknikariak orduka hartzea, teknikariak kontratatuzko dirulaguntzak probestea, Foru Aldundiarekin edo Eusko Jaurlaritzarekin elkarlana bilatzea etab.

II. Berdintasun Plan bat martxan jartzeko ordua ere badela uste dugu. Plan honek balioko liguke, besteak beste, eskualdeko protokoloetan zela ikusteko edo, herritarrei begira, premiazko beharrak zeintzuk diren jakiteko.

Azkenik, azpimarratuko nuke, genero ikuspegia zeharlerro bezala kontsideratuko dugula udal jardunean, politika eta ekintza guztietan kontutan hartuz.



1. Enetz Ezenarro
2. Dorleta Lazarobaster
3. Iñigo Bastida
4. Sonia Garcia
5. Olatz Bizkarguenaga
6. Lurdes Urain
7. Luis Salgado
8. Jabi Muñoz
9. Aintzane Lazkano
10. Jon Larrañaga
11. Begoña Ulazia
12. Amaia Etxabe
13. Igor Rey
14. Lurdes Rodriguez

ehbildu

Enetz Ezenarro

(Mendaro, 1977)

Tren estazio pareko etxeetan sortua da, eta elkarrizketarako, estazioan batzea proposatu du. Ordurako dator, baina hala ere, barkamena eskatu du, kazetaria zain duela ikusita. Sarri gertatzen zaio nonbait hitzorduetara atzetik agertzea. Abarketeroneko parera iritsita aitortu

du. "Makina bat aldiz ibili naiz lagunena bila, batera eta bestera; berandu ibiltzeak hori dauka! Ez naiz puntualena, ez!". Bi liburu hartuta dator: *Pako Aristiren Rosa itzuli da* eta Emrys Jonesen *Geografia humana*. "Ez du botorik emango, baina irakurtzea gustatzen zait", dio erdi txantxetan, jakitun irakurzaletasuna ez dela ezaugarri balaratuena gaur egungo jendartean. Ez dago eroso. Nahiago luke ziurrenik elkarrizketen trantzetik pasatu beharrik ez izatea eta argazki kameraren miran egon beharrik ez izatea, baina badaki tokatzen zaiola. Hiz-

ketan, baina, berbaldu da, eta ekin dio bere burua aurkezteari.

Elkarrizketarako aukeratu duen lekutik gertu jaiotako eta hazi da, eta estazioari eta hangotik jendeari buruzkoa da bere lehen erreferentzia. "Bi etxe ziren lehen hemen, eta fabrikak alde bietara. Hauxe zen gure lekua, gure kalea, eta gure jolastokia ere bai. Estazioak bazuen identitate bat orduan". Lau anaiatan hirugarrena da, eta gaur, bi seme-alabaren aita da. Arduratsua, saiaturia, burugogorra eta urduria dela dio bere buruaz. Umetatik izan da hala, eta horrek eskolan emaitza onak eman izan dizkio, kalifikazioak "ia-ia obsesio bihurtze

EHBilduren Mendaroko alkategaia

Matematikaria, naturazalea,
esploratzailea eta euskaltzalea



“Oso oroitzapen ona izan dut beti Guruzpe elkarteak herrian eta herritarrontzat egindako lanaz”

raino ere bai gaztetan”. “Nota onak ateratzen nituen, bai, baina ez lanik egin gabe”. Matematikan lizentziatua da, eta gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatean dihardu, irakasle eta ikertzaile, Bilboko Magisteritza Eskolan [Sarrikon, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, ibilia da aurrez]. Matematika, baina, ez zuen lehen aukera izan. “Topografia ikasten hasi nintzen Gasteizen, baina ez nuen ezer egin eta laga nuen. Arkitekturari izena eman nuen gero Donostian, eta han ere lagun onak egin nituen, baina konturatu nintzen hura ere ez zela nire, eta arduratu nintzen arduratu, zer egin asmatzen ez nuela ikusita”. Matematikaz gain, soziologia ere landu du hainbat urtetan, Udako Euskal Unibertsitatean.

Dena ez du ikastea izan, baina. Umetan -eta ez hain umetan-, makina bat zapatila urratutakoa da baloiari ostikoka. “Ezin zen bestela”. Kilimon futbol taldeko harrobian ibilitakoa da. “Hobeak baziren, baina txar demasa izan ezean denentzako lekua izaten zen han”. Anaia zaharragoak zituen goragoko mailetan eta haien taldeei segika makina bat herri ezagututakoa dela dio. “Izardi patzetan ibiltzen ginen beti futboleant. Institutuan ere, beste batzuk beste gauza batzuetan hasita zeuden sasoiari, futboleant ibiltzen ginen gu eta orri bat ukitzeko baino izerdituago ginela joaten ginen gelara”. Kilimon futbol taldearen historiaren hondarretan klubeko zuzendaritzakide ere izan zen. “Emeterionean egiten genituen batzarrak, Elias Arriola eta klubeko beste historikoekin”. Bizikletarako afizioa ere izan du, baina beste maila batekoa. “Hondartzara joateko-eta hartzen nuen bizikleta, baina sekula ez dut mailotik eta kuloterik jantzi”. Aitarengandik jaso zuten lau anaiek kirolerako zaletasuna. “Egin ez, baina asko gustatzen ziizaion gure aitari kirola”, dio.

Naturazalea

Patxada ere maite du, hala ere. Gustatzen zaio behatzea, adinekoen ahotik kontu zaharrak entzutea, bai eta inor gutxi dabilen lekuak esploratzea ere. Garagartzar-

ko erreka bazterrak eta harri-zuloak ondo ezagutzen ditu, baita Txitxirrika, Gaintxipixa edota Plaza auzoko inguruak ere, batzuk aipatzearen. “Ordu asko egin ditut harra-hona, gehienetan bakarrik, bazterrak ikusten. Beti izan dut afizioa zirrikitu guztiak erregistratzekoa”. Leku maiteak asko ditu Mendaron, eta badu ezagutu duen natur inguru horrekiko kezka. 14 urte zituenetik Greenpeace gobernuz kanpoko erakunde-ko bazkide da. “Ekologistek fama txarra dute gaur, baina kezkatzen nau ingurumenak. Ez naiz sekula pinuak ateratzen eta mendian sugeak askatzen ibili, hala ere”. Akorduan du Mururoan [Aopuni Tuamotu artxipelagoko atoloian] arma nuklearrak frogatzeko Frantziak egiten zituen saioren kontra nola irten zen behin manifestazioan bera bakarrik Mendarozabal, eta baita nola joan zen Andra Mari jaietan Azpilgoetan antolatutako ahari-topeka saio batera ahari-jokoen kontrako kartela hartuta. 16-17 bat urte izango zituen.

Kultura, lehen tasun

Ezinegon handikoa da, eta geldi egon ezin horrek bultzatu du herrigintzan hainbat taldetan militatzera. “Oso oroitzapen ona izan dut beti Guruzpe elkarteak herrian eta herritarrontzat egindako lanaz”. Akorduan dauzka Trinitaten egiten ziren jaialdiak, antzerki emanaldiak eta beste, eta enbidiaz gogoratzen du orduko kultur eskaintza. Lehen tasunetako bat du hori: kultura bultzatzea, eta kulturarekin batera, euskararen erabilera sustatzea. Kulturarekiko eta hizkuntzarekiko ezinegonak bultzatuta, herriko hainbat taldetan militatu du. 21 bat urterekin In Leikera batu zen. Guruzpetik egindako lanari bultzada emateko bokazioz sortutako elkartearen In Leik-

ke. Mendaroko Plataforma Aktiboan ere parte hartu zuen. Egin egunkaria itxi berritan sortu zuten plataforma, dirua batze aldera, eta pare bat urtean kontzertuak-eta antolatu izan zituzten santetan, Herriko Enparantzako lokal batean. “Gazte Asanbladaren hasiera-edo izan zen hura”. Gogoan ditu Gazte Asanbladaren hastapenak. Egoitza lortzeko, gaur haurreskola den eraikina okupatu zutenen taldean ere hantxe zen. “Beste batzuk ere egiten zutela eta gu ere han ibili ginen rotaflexarekin-eta, baina ezerezean gelditu zen. Azpilgoetako abadetxean ere ibili ginen gero denbora batez. Gaurko lokala geroagoko kontua da. Gauzak antolatzea zen gurea”. Asmo horrekin, futbol txapelketa ere berreskuratu zuten, garai batean Guruzpek San Josen antolatu izan zuena. “Paperak atera, kartelak ipini, dirua eskatu, baloia erosi eta aurrera!. Gauza materialak beharrezkoak dira, baina halako bestelako gauzarik gabe ez dago herririk”, dio.

Mendaroko bertso eskolaren ardura ere hartu zuen, Alain Ulaziak ikasketengatik utzi beharra izan zuenean, eta sasoi hartantxe hasi zen BARRENEN kolaboratzen ere, *Gaztea naiz barren!* atalean lehenengo eta Mendarori eskainitako *Kilibarren* atalean gero. Eta gaur ere iritzi emaile da aldizkari honetan. Zientziaren dibulgazio lanetan aritzen da *Iritzia* saillean, Euskal Herriko Unibertsitatearen *Eman eta zabal zazu* goiburua bere eginez. Euskarekiko kezka agerikoa du, era berean. “Txillardegik ere esaten zuen hizkuntza mantentzen ez baldin bada, beste guztia bigarren mailakoa izango dela. Eta Txepetek ere antzekoa zioen, hizkuntza aldatzen denean paisajea bera ere aldatzen dela zioenean”, dio. Kezka horrekin batu zen In Leikeran Euskara taldera hasierako urte haietan, eta kezka horrek eraman zuen duela urte batzuk Mendaroko Euskara Taldean militatzera. Gutxi jakingo dute, beharbada, baina bera izan da Mendaro Ueman, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, sartzeko bultzatzaile nagusia ere.

Iñaki Arregi

EAJ-PNVren Mendaroko alkategaiari elkarrizketa

“Gobernantza berrian urratsak ematen jarraituko dugu, gertutasunetik, elkarlanean eta gardentasunez”

1. Zer lehenetan ikusten dituzu Mendaron?

Gure hauteskunde egitarauan argi jaso dugun bezala, ongizatea bermatuko dugu, gizarte politika eraginkorrekin. Herriko enpresak bertan mantentzeko enplegua mantentzeko eta industriarako lur berriak sustatuko ditugu enpresa berriak erakartzeko eta lanpostu berriak sortzeko.

Tokiko merkataritzaren eta lehen sektorea edo landagunearen sustapenerako neurriak hartuko ditugu, eta sektoreekin elkarlana bultzatuko dugu.

Zerbitzu publikoak hobetu nahi ditugu, eta berriak sortu. Euskararen erabilera sustatzeko neurriak ere hartuko ditugu, eta bizikidetzeta eta berdintasuna bultzatu. Gobernantza eredu berrian urratsak ematen jarraituko dugu, udal kudeaketan gertutasunetik, elkarlanean eta gardentasunez arituz.

2. Zer izango da alkatezeta lortu eta egingo duzun lehenengo gauza? Zein alorretan jarriko ditu indarrak zure alderdiak legegintzaldi berri honetan?

Herritarrei entzun, herriko talde guztiekin elkartu eta hortik aurrera lanerako giroa jarri, elkarrekiko errespetuz.

3. Zer egingo duzu Mendaroren herri izaera sendotzeko? Zer auzoen arteko kohesioa lantzeko?

Lehen esan dudan bezala, herrian zerbitzu publiko eta ekipamendu egokiak izatea eta bertan lana egiteko aukera izatea edo dendak izatea behar-beharrezkoa da herrian bizitzeta sortzeko, bestela lotarako herri bat izateko arriskua daukagutako.

Gure herria auzoetan banatuta badago ere, erdigune bat badugu, askotan bertan kokatzen ditugularik herriko ekintza nagusienak. Auzoetako bizitzeta bultzatu nahi dugu, eta hainbat hobekuntza egin.

4. Euskararen arnagune izateari laga dio Mendarok. Euskararen erabilerearen inguruko datuak apalduz doaz ur-



retik urtera, eta esparru formaletan ere igarrita daude gainbehera, ikastolatik bertatik ohartarazi dutenez. Zer duzue honen inguruan esateko? Zer nolako hizkuntza-politika landuko duzue?

Asko kezkatzen gaituen gaia aipatu duzu. Nabarmena da kalean euskara gutxi entzuten dugula, eta behar beharrezkoa dela zerbait egitea. Azken legegintzaldi honetan egin ditugu proposamenak zentzu honetan, baina erabilerearen neurketa bat egin da bakarrik. Guk uste dugu premiazkoa dela ekimen zehatzak edo plan zehatz bat abian jartzea, euskararen erabilera herriko arlo guztietan, lantokietan, osasun zerbitzuetan, komertzioan, udaletxean... bultzatzeko, beste hainbestetan bezala herriko eragileekin elkarlanean. Gure kultura euskaraz sustatzen ere indarrak jarriko ditugu.



5. Mendaroko herrigunera sartzeko ate bakarra dago: Zubi Berria, eta bada herritarren kezka bat. 2009an, EAJren agintaldian, bigarren zubi bat egiteko proiektua aurkeztu zuen Udalak. Programatik kendu zuen EAJk berak hurrengo legegintzaldian, eta asmoen artean aipatu zuen EHBilduk 2011n, alkatetza lortu berritan, baina ez da proiekturik gauzatu. Honen inguruko ekinbiderik aurreikusten du zuen alderdiak?

Mendaroko Hirigintza Plan Orokorrean zubi berri baten eraikuntza aurreikusten da Igartualdea Industrialde inguruan, baina bere bideragarritasuna zaila denez, 2010ean beste aukera batzuk landu ziren Gipuzkoako Aldundiarekin. EHBilduren lehen agintaldian proiektu bat aurkeztu zen, eta Mendarozabal auzoko auzotar batzuen kontrako jarrera tarteko, Udalak bertan behera uztea erabaki zuen. Azken bi agintaldietan EHBilduk ez du arlo honetan aurrerapenik egin, baina argi dago behingoz gai honi heldu behar diogula. Gure lana arazo eta aukera guztiak aztertzea izango da, eta mahai inguruan partaide guztiarekin elkartzuz, Aldundia, Osakidetza, Urak, Udala... denon artean irtenbideak bilatzea.

6. Zer da herrigintza zuretzat?

Herria herritarrok egin behar dugu eta herriarekin orain lau urte hartu nuen konpromisoa berresten dut, oraingoan alkatetzara aurkeztuta.

Nik bide hau hartu dut, baina herrigintzan bide ezberdinetatik aritu daiteke, talde eta eragile askok egiten duten bezala. Denok gara beharrezkoak, eta herrigintzan elkarlanean aritzea da gure erudia.

7. Komertzio txikiak bizia ematen dio herriari. Dendak itxi dituzte azkeneko urteotan. Zer egingo du zure alderdiak herriko merkataritza eta ostalaritzari eusteko?

Gure egitarauan jaso dugun bezala, tokiko merkataritzari lagunduko diogu, ezinbestekoa delako herri bat bizirik egoteko eta bertan bizitzeko dendak izatea. Ez da erraza gaur egun denda txikiak irekita izatea, are zailagoa Mendaro bezalako herri txiki batean, baina ahalegin guztia egingo dugu irekita daudenei laguntzeko eta ekimen berriak sustatzeko.

8. Zerrendak osatzeko zailtasun agerikoak izan dituzte alderdiek. Alkatea dago gaur liberatuta. Zer planteamendu dakar zure alderdiak legegintzaldi berrirako?

Pozik nago osatu dugun taldearekin, eta horregatik, eskertu eta txalotu nahi nituzke taldekide guztiak, agertutako konpromisoagatik Uste osoa daukat talde indartsua daukagula eta etorkizun-

neko erronkei aurre egiteko prest gaudela. Alkatetzarako aurkeztzen naiz, eta horren erantzukizun osoa hartzen dut; hori bai, nire lan egiteko modua, beti, taldearekin oinarritu da.

Udaletxeko gobernuan egotea suertatzen bazaigu, taldearen arabera banatuko dira ardurak eta azterketa hori emaitzaren arabera egingo dugu, liberazioak eta ardurak antolatuta.

9. Badira gai batzuk, urtez urte errepikatzen direnak, baina gauzatzen ez direnak. Azpilgoetako autobus geltokiarena da bat. Zein lehentasun du gai honek zuentzat?

Lehentasun osoa duen gaia da guretzat eta horrela jaso dugu gure egitarauan. Ezinbestekoa da Aldundiarekin elkarlana konponbide bat bilatzeko eta legegintzako lehen egunetik hasiko gara lanean.

10. Udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua da. Zertan inbertituko duzue dirua?

Ondo diozun bezala Udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua da, eta horrek kudeaketan lagundu egiten du dudarik gabe. Baina horretarako herri proiektua izatea behar-beharrezkoa da eta guk badaukagu.

Lehentasunak ezarri eta hortan erabili behar da dirua, mendaro arazo guztien bizi kalitatearen alde, auzoetan hobekuntzak eginaz, zerbitzu publikoak eta kirol eta kultura ekipamenduak hobetuz eta berriak sortuz, kaleak garbi edukiz, berdeguneak zainduz, landagunea zainduz, kultura sustatuz, euskararen erabilera bultzatzeko edo berdintasunaren aldeko politika zehatzak martxan jarritz, merkataritza bultzatuz, e.a.

11. 2009an sortu zuen estreinako Berdintasun Plana Udalak, bi urterako. Gabezi edo hobetu beharreko hainbat puntu jaso zituzten plan hartan, besteak beste: ginekologia eta pediatría zerbitzuak herrian sendotu eta egonkortu beharra, kaleko izendegian emakume-izen gutxiegi izatea, genero-ikuspegia landu beharra Udalean, genero rolen eta estereotipoen inguruko kontzientziazio saioen

premia... 2019an gaude, herriaren ezaugarriak aldatu dira (besteak beste, askotarikoagoa da gaur), baina haietako gabezi asko gabezi dira gaur ere. Zein politika sustatuko duzue alkatetza lortuz gero?

EAJren agintaldian egin zen Berdintasun Plana, eta plan hura berrikustea izango da egingo dugun lehen ariketa. Berrikuspen hori herritarren parte-hartzearekin egingo dugu, eta bertan jasoko dira egin beharreko ekintza edo ekimen zehatzak.

“Lehentasunak ezarri eta hortan erabili behar da dirua, mendaro arazo guztien bizi kalitatearen alde”



1. Iñaki Arregi
2. Angel Mari Iriondo
3. Maite Apellaniz
4. Amaia Urra
5. Nerea Isasi
6. Jose Manuel Muñoz
7. Edu Zubiaurre
8. Alberto Orbegozo
9. Irune Iriondo
10. Raul Santamarta
11. Azibar Iraolagoitia
12. Alex Aranberri
13. Mari Paz Berasaluze
14. Ramon Alberdi



Iñaki Arregi

(Mendaro, 1968)

EAJ-PNV Mendaroko alkategaia

Batzokian batzea proposatu du elkarrizketarako, baina argazkirako, Ospas-gain aukeratu du, oroitzapen on askorekin lotzen duen lekua dela arazoituta. Baloia eta Kilimon futbol taldearen elastiko txuri-berdea hartuta da-

tor. Taldekide izan zuen lagun on batek laga dio propio argazkirako. "Kameraren aurrean bizkarrik ez emateko eskatu dit, hori bai", zehaztu du erdi-txantxetan. Kilimon taldeko historikoetako baten deitura du kamisetak, eta euskal politikagintzako beste historiko biren artean eseri da elkarrizketarako. Ezker horman, Xabier Arzalluz (1932-2019) gazte baten argazia ageri da, eta eskuin horman, Jose Antonio Agirre lehendakariarena (1904-1960). Elkarrizketa hasterako ar-

gitu du, baina, berak ez duela haiek besteko hitz jariorik. "Gehiago naiz entzutekoa". Pertsona lasaia dela dio bere buruaz, "patxadazkoa". "Edozeinekin hitz egitekoa naiz, hori bai, baina ez naiz berba errazekoa". Mendaroarra da jaiotzez, Azpilgoetakoa, eta solasaldian zehar behin baino gehiagotan agertuko du jaiotzearen auzoaren agerik. "Azpilgoetakoak Azpilgoetan ibiltzen ginen sasoi batean. Igerian ere Plaza auzoko presapen ikasi genuen gure sasoiaren azpilgoetar gehienok, Deba hor bertan egon

Enpresaria, lagunartekoa eta,
ume-umetatik, kirolzalea



“Dena plazan zentralizatzen da orain, eta auzoek identitatea eta garai bateko bizia galdu dute”

arren. Auzoa bizi genuen”. Dio auzotarrek egiten zutela bizia auzoa, eta auzo biziek, herri bizia. Gaur hori falta dela dio. “Dena plazan zentralizatzen da eta auzoek identitatea eta garai bateko bizia galdu dute. Orduan ere kostatuko zen batean eta bestean jaietan-eta oholtzak jartzea, baina konpontzen ziren. Hiru auzoetan izaten zen zerbaite jaietan... Hor badaukagu lana”.

Elgoibartarra du ama, eta azkoitiarra aita, baina Mendaron jaiotua, hazi eta jolastu da, eta Mendaro beretzat izan dena izatea nahi luke semeentzat eta atzetik datozenentzat [Bi semeren aita da]. Hain zuzen ere, semeetako batek esandakoa ekarri du, politikagintzan sartzera zerk bultzatu zuen arrazoitzeko [Hirugarren legegintzaldia du hau EA]-ren zerrendetan. Azkeneko legealdian zinegotzi izan da]. “Handitzen naizenean herri honetatik alde egingo dut, ez dagoelako ezer, esan zidan semeak eta hein batean ulertzekoa da, herria, asteburuetan, hilda dagoelako”. Mendaro “biziago” baten alde lan egiteko sartu zen “herrigintzan”, herri-sentimendua indartzeko. “Zer da politikagintza herrigintza ez bada? Nik modu horretan ulertzen dut politika”, zehaztu du horren harira.

Enpresa gizona ofizioz, kirolaria afizioz

Mekanika ikasi zuen Elgoibarren, eta Batxilergoa hasi zuen gero, baina “ikasteko gogoak alde egin”, eta 17 bat urterekin, enpresa munduan hasi zen lanean. Gaur, bere enpresa du Elgoibarren, duela 13 bat urte beste hiru lagunekin batera sortutakoa. “Aurrez, beste saiakera bat ere egin genuen enpresa sortzeko, baina ahalegin hark ez zuen emaitza onik eman, eta bigarregoa egin genuen aurrera”. Lana kirolarekin uztartu izan du beti, horixe delako afiziorik handiena. Ume-umetan korrika ibilitakoa da, eta gero, 9-10 urterekin, futbolerako saltoa eman zuen. Kilimon futbol taldean, herriko klubean, hasi eta bu-

katu zuen futbolari ibilbidea, eta pasioz gogoratzen ditu baloiari ostikoka emandako urteak.

“Izugarri ondo pasatzen genuen. 25 urterekin ezkondu nintzen, 27rekin guraso izan nintzen, eta semea jaiotzen aurretik laga nuen futbola, guraso izatean beste eginkizun batzuk izango nituela pentsatuta. Orain, atzera begira jarrita, pena ematen dit laga izanak”, dio. Tristura handiagoa sentitzen du, hala ere, garai batean futbol zelai izan zutena gaur dagoen egoeran ikustean [Avar Eztanda automobilismo elkarteak erabiltzen du gaur, eta garai hartako azpiegituren ondoan berriak eraiki dituzte, euren beharretarako].

Gaur, beste askori bezala, egunerokotik ihes egiten laguntzen dio kirolak, buruko kargak arintzeko eta forman mantentzeko, baina hori baino gehiago ere izan zen kirola, bederatziz zenbakidun Kilimoiko kamiseta txuri-berdearekin hara-hona ibili zen garaian. “Bizimodu bat zen orduan. Futbolic gabeko bizitarik ulertu ere ez genuen egiten. Familia bat ginen, eta sekulako harremana geneukan gure artean. Santuarenen ogibitartekoak eskatu eta kantuan egiten genituen joan-etorriak autobusez, kanpoan jokatzen genuenetan”. Emeterionean ere ostiral eta iluntze gau bat baino gehiago egindakoa da, kina-jokoa antolatzen. “Kartulinatxoak banatu eta dirua kobratzen aritzen ginen”, zehaztu du.

Kilimoien garai haietako talde-giroa mantentzen dute oraindik ere, sarri elkartzen direlako orduko taldekideak Elgoibarko Aistia auzoko elkartearen, afaritan. “Oraindik ere golak sartzen

ditugu!”, dio txantxetan.

Futbolak bazter ugari ezagutzeko eta lagun onak egiteko aukera eman ziola dio, eta baita “balore on eta garrantzitsu asko” barneratzeko ere: “Disziplina, adiskidetasuna, talde sentimendua, taldeanaren garrantzia...”. Ospas gaingo oroitzapenek San Josen bizitakoetara ekarri dute. Akorduan ditu zezenari ihesi baloiaren atzetik egindako ibilerak. Guruzpek antolatu zuen lehenengo urteetan futbito txapelketa, eta kuadrillek eurek geroago. “Hirugarren solairu arteko sareak jartzen genituen, baloiak leihorik apurto ez zezan eta pike gogorak izaten genituen”.

Guruzperen lana, eredutzat

Guruzpe kultur elkarte aipatu du, eta adibidetzat jarri du haren izana eta egitea. “Zer ez zen sortu Guruzpetik!”. Zuzendaritzakide izandakoa da bera ere Guruzpen. “Mendaroar gehienok pasatuko ginen noizbait Guruzpetik, eta hori zuen ona!”. Guruzperen bueltara batutakoek herriaren alde egiteko “konpromiso hura” miresten du. Dena ez zen lana, baina, orduan ere. Guruzperen bueltan makina bat ibili eta parranda ere egindakoa dela oroitu du. Sanferminetarako irteerak, El Ciegora egindako osterak... “Festa ere beti gustatu izan zaigu”, dio. “Guk egindakoen laurdenak ere ez dituzte egingo gure semeek”, gehitu du. Orain ere gustatzen zaio kalera irten eta lagunarteko poteo-giroa, eta tartean-tartean parranda bat edo beste egitea ere bai. “Orain ez dago gaztetako konturik, hala ere. Gutxiago egiten dugu, eta egiten dugunean, ostegunera arteko denbora behar izaten dugu errekuaratzeko”, bota du erdi txantxetan. Nahiago du beraz bizikleta hartu eta lagunekin hara-hona ibiltzea. Mendaroko Txirrindulari Elkartearen bazkidea da, eta sarri ikusi dugu 634 errepidean gora eta behera, Mendaroko elastikoa jantzita.



1. Mari Jose Telleria
2. Jesus Ofizialdegi
3. Jose Maria Diaz
4. Maria Nieves Pellus
5. Jon Estanislao
6. Jose Gonzalez
7. Rosa Maria Lorenzo
8. Julian Gabino
9. Maria Dolores Cejudo
10. Miguel Eladio
11. Aurelia Vilches

PSOE



Mari Jose Telleria

(Eibar, 1971)

PSE-EEko Mendaroko alkategaia

Eibartarra da sortzez, Eibarren bizi da, 19 eta 17 urteko bi mutilen ama da eta bera da Mendaroko alkategaien artean ibilbide politiko luzeena duena. 1999-2015. urteen artean, zinegotzi izan zen Eibarko Udalean,

Kultura eta Gazteriakoa lehenengo eta Merkataritza eta Garapen Ekonomikorako Sailekoa gero, eta 2015ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari izendatu zuten. Lau urtez izan da Kultura zuzendaria, baina une honetan langabezian dago, PSE-EEK Batzar Nagusietarako aurkeztu duen zerrendan lehenengo delako bera Deba-Urola barrutian eta zerrendaburu izatea eta Kultura zuzendari-kargua izatea ez direlako bateragarri. Politikan bide luzea egin du, eta

kargu politiko handiak bete ditu, "baina beti kudeaketari lotuta". "Politika herritarrei zerbitzua ematea da. Hala ulertzen dut nik, eta egiteko horretan jardun naiz. Ahalegindu naiz alderdiaren eta neure baloreak -ingurumenarekiko kezka, feminismoa, aniztasuna...- islatzen eguneroko politikan, baina alderdiaren batzordeetan eta sekula ez naiz aritu. Ez naiz diskurtso politikoak sortzen ibili".

Gertukoa da hizketan, eta "oso pertsona normala" dela dio bere buruaz, "afizio arruntak dituen". Elkarrizketarako Herriko Enparantzan elkartzea propo-

Kazetaria, kultur zalea eta instituzio publikoetan eskarmentuduna



“Politika egitea herritarrei zerbitzua ematea da. Hala ulertzen dut nik, eta egiteko horretan jardun naiz”

satu du, kafe baten bueltan solasterko, baina argazkirako Azpilgoetako Kultur Etxea aukeratu du, hantxe ibili berri delako biodantza ikastaro batean. Itxita dago, baina, lokala, eta bigarren aukera gisa, Mendaroko bi auzo nagusiak batzen dituen zubia aukeratu du. Argazkitan agertzea ez zaiola gustatzen aitortu du, baina ohitu dela. “Badakit argazkilariek ahalegin berezi bat egiten dutela gu denok ondo irteko. Argazki zatarrak ez da argitaratzen normalean, baina norberak ez du bere burua beti ondo ikusten. Nahiago izaten dut ez begiratu. Badut konfiantza zuengan”. Yoseba Peñaren *Hariak* liburua hartuta dator argazkirako. “Irakurri ez baduzue, irakurri, oso interesgarria da”, gomendatu du. Euskal Herriaren 50 bat urteko historiari erreparatu dio Peñak *Hariak* nobelan, eta hiru belaunalditako emakumeen bidez, memoriaren transmisioan eta kulpan arakatu du. Atzera begira jarri eta memoria ariketa egiteari ekin dio berak ere.

Kazetaritzan lizentziatua

Ikasketaz, kazetaria da, eta Jose Maria Aznar Espainiako presidenteren agintaldian, Euskal Herriari itxi zituzten bi egunkarietan lan egindakoa da: *Egin-en* eta *Euskaldunon Egunkaria*-n [Baltasar Garzon epailearen aginduz itxi zuten *Egin*’, 1998an, eta Juan Del Olmo epailearen eskariz itxi zuten *Euskaldunon Egunkaria*’, 2003an]. Kazetari gisa, zorte handikoa dela dio, ikasten ari zela ezagutu zituelako *Euskaldunon Egunkaria*-ren sorrera (1990), bai eta Eibarko ...*eta Kitto!* herri aldizkariaren sorrera ere. [1988an sortu zuten ...*eta Kitto* berez, baina hasierako hiru urteetan Eibarko Udalak kaleratzen zuen. Izen bereko elkarteak, 1992an sortu zuten, Fernando Muniozguren Eibarko euskalgintzako eragile handiak sustatuta, eta 1994az gozotik, ostiralero-ostiralero banatzen du elkarteak aldizkaria].

Hiru urtez ibili zen kazetari lanetan,

eta 1996an, Enplegu eta Formazio teknikari lanetan jardun zen Erreterian eta Zumarragan, eta 1998an, Durangoko Udalean hasi zen lanean, gazteen enplegu eta prestakuntzarako Europako proiektu batean. Egun batean, baina, Durangon beste herrialde batzuetako ordezkariekin izandako bilera batetik etxerako bidean zela, auto istripu larria izan zuen, eta bere bizitzak beste norabide bat hartu zuen. “Istripuagatik bajan nengoela, Iñaki Arriolak Eibarko PSE-EEren zerrendan sartzea proposatu zidan. Eibarren askoz lasaiago egongo nintzela pentsatu nuen, eta onartu nuen, baina gero, asko uste gabe, garai zailak bizitzeko tokatu zitzaidan”, dio, ETArekin mehatxuengatik bizkartzainarekin ibili behar izan zen urteei erreferentzia eginez. Pasatu du orrialdea, baina. “Asko ikasi nuen orduan ere. Hori ere egin behar izan genuen, eta egin genuen”, dio. Lau legealdi bete ostean laga zuen udaletxeko lana, “enpresa pribatuan lanean hasiteko asmoz”, baina Denis Itxasok deituz Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari izateko.

Gustuko lana izan du, gustuko delako kultura. Eta nabari zaio. Tabernara sartzeaz batera begiratu die horman eskegita dauden koadroei. “Iñaki Larrañagarenak izango dira, ala?”. “Irakurtzea eta musika entzutea gustatzen zait, eta Eibarren Coliseoan egiten diren ekitaldietara ere sarri joaten naiz. Gustatzen zait domeketan eguraldi onarekin mendira joatea ere, baina ez naiz kirolzalea. Neure burua kirola egitera behartzen dut, hala ere”. Meditazio ariketak egunero egiten ditu, hori bai. Lasaitzeko eta gai ezberdinen inguruan

hausnartzeko balio dit meditazioak”, zehaztu du. Patxadazkoa dela ematen du berbetan, baina “guztiz kontrakoa” dela dio, eta horregatik zaizkiola horren lagungarri meditazio ariketak. “Urteak daramatzat egunero beste pertsoneri nola entzuten dieran galdetzen neure buruari. Badago teoria bat lau modu daudela zehazten duena. Batzuetan, ahoak eman ahala jarduten gara, besteei entzun gabe; beste batzuetan entzuten egoten gara, baina helburu batekin: gure diskurtsoa botatzeko; gure iritziak botatzen ditugu beste batzuetan izpiritu konstruktibo batekin entzuten dugu. Lagungarria da ariketa”, azaldu du.

Taldean lan egitearen aldekoa

Taldean lan egitea gustatzen zaiola dio, eta talde-giro hori bilatu eta topatu duela ibili den lekuetan. “Neuk ere ahalegina egiten dut beti nabilen lekuetan talde-giro hori sortzeko. Inongo enbarazurik gabe ematen eta eskatzen ditut gauzak; beti egon naiz proiektuaren zerbitzura, proiektua edozein izan dela ere”. Eta Mendaroren zerbitzura jartzera datorrela dio Udala eta Foru Hauteskuendeei begira jarrita. Ezin du, hala ere, “beldurra” ezkatatu. “Ez dut ezkatutako: paratxutista baten antzera nator. Kanpotik nator, bai, ez naiz herrikoa, ez, baina ikasteko gogoz nator, apaltasun osoz. Beti da hobe herrikoa izatea zinegotzi lanerako, baina kanpoko begirada bat izatea ere ez dut uste txarra denik. Harremanak ere egin ditut erakundeetan, eta hori beti da baliagarri herrirako gauzak lortzeko”. Bitxikeria gisa esango dugu, ekarpen bat egin duela. Kontzezio azokan Gazte Asanbladakoek eta Udalak berak erabili izan duten talo-makina berea da, senarrak sortutakoa. “Konbentzitutak zegoen lan hori errazteko bidea egon behar zela. Mexikon jaten zuten beste tortarekin han derrigor izan behar zutela zerbaite”. Eta Interneten topatu zuten kopiatzeko moduko eredia.

Mari Jose Telleria

PSE-EEren Mendaroko alkategaiari elkarrizketa

“Mendarok oso ingurune interesgarria dauka, bai ingurukoak zein kanpokoak erakartzeko”

1. Zer lehenetasun ikusten dituzu Mendaron?

Populazio handia ez duen arren, Mendaro zatituta dago. Batetik, kaleko gune nagusiak daude zerbitzu eta azpiegitura aldetik hobeto orekatu behar direnak, eta bestetik, landa azkoak. Kaleko guneen indarra orekatu behar da, ez bakarrik etxeko jendea hara hurbilduz, baizik eta jendea erakarrit, eta baserri mundua gehiago kontuan hartuz. Debemenen ordezkari izan nintzen urteetan, baserrietan ahalegin handiagoa egin ahal zela konturatu nintzen. Ura eta pistak ezinbestekoak dira bai, baina horiekin batera inbertsio handiagoak egitea beharrezkoa da baserriak bizirik irauteko, gazte jendea erakartzeko eta Mendaroko inguruneak enplegua sortzeko ematen dituen aukerak aprobetxatzeko.

2. Zer izango da alkatetza lortu eta egingo duzun lehenengo gauza? Zein alorretan jarriko ditu indarrak zure alderdiak legegintzaldi berri honetan?

Zubi berri bat eraikitzeke parte hartu behar duten erakunde guztiak bilduko nituzke, bakoitzaren ardura eta zeregina ondo ordenatu eta prozesua antolatzeari ekingo nioke. Badakit ez dela lan erraza izango, instituzio bakoitzaren lehenetasunak eta baliabideak ezberdinak izaten direlako beti; baina horregatik hain zuzen ere, da hain garrantzitsua denak elkartu eta, bakoitzaren premia eta egoera kontuan hartuta, lana planifikatzea. Zubi bat eraikitzea ez da legegintzaldi bateko proiektua, epe motz eta ertainera antolatu beharra dago; baina lehenengo egunetik hasi behar da konpromisoak bilatzen.

Herrirako sarrerak ere txikundu behar direla uste dut. 634 errepedea erdi-erditik pasatzen da, baina ez da ezer erakusteko aprobetxatzen, eta pena da. Gaur egun turistak batera eta batera dabilta Gipuzkoan, eta Mendarok oso ingurune interesgarria dauka, bai inguruko bai kanpoko jendea erakartzeko modukoa. Zergatik ez mendi ibilbideak erakutsi, ostalaritza aur-



keztu, historia eta etorkizuna azaldu? Zenbat lagun pasatzen dira egunero-egunero ospitaletik herrira “sartzeko” ahaleginik ere egiten ez dutenak? Loreak, eskulturak, kartelak, eskuorri txukun batzuk... ekimen txikiak dira, baina eragin handia izaten dute interesa pizten.

Eta zalantza barik, lehenengo asteetan jendearekin elkartu, galdetu, ezagutu... Ni ez naiz bertakoa eta zailagoa daukat herriaren gorabeherak jakiteko; baina aldi berean, distantziatik eta begirada zabalago batekin, gauzak beste modu batean ikusten dira, eta ikuspuntu hori lagungarria izango dela uste dut.

3. Zer egingo duzu Mendaroren herri izaera sendotzeko? Zer auzoen arteko kohesioa lantzeko?

Herrian dauden plaza eta azpiegiturak hobeto aprobetxatu, lehenengo herrikoei eta gero, bailara mailan dauden elkarte eta ekintzaileei eskainiz. Bestetik, Udalak baditu lokalak hutsik



*“Ez naiz bertakoa
eta zailagoa daukat
herriko gorabeherak
jakiteko, baina aldi
berean distantziatik
eta begirada
zabalagoarekin
gauzak beste modu
batean ikusten dira”*



daudenak eta horiek negozio berriak jartzeko eskainiko nituzke; formularik egokiena bilatu eta hasten daudenei laguntzeko erabili. Ziur horrek herriaren ekonomiari on egingo diola. Azpilgoetan eta Garagartzan hasiko nintzateke bi ildo hauek gauzatzen.

Bestetik, kalean antolatzen diren ekitaldi guztiak udaletxe aurrean egin beharrean, beste gune batzuetara ere eramango nituzke. Ostalaritzarekin elkarlanean proiektuak lantzea derrigorrezkoa ikusten dut; sare moduan funtzionatuta denek irabaziko dutelakoan nago, eta azken finean, gure gizartean tabernak bizitza soziala egiteko gune ere badira.

Ibilbideak ere hobeto prestatuko nituzke, bai mendaroarrak eta bai bisitan datozenak gidatzeko. Ondo seinalizatu, informazio interesgarria gehitu, eskuorri txukun batzuk argitaratu, bisita gidatuak antolatu... eta Mendaron ezezik, kanpoan eta sare sozialen bitartez ere honen berri eman. Eta Azpilgoetan, eguneko zentroaren aurrean dagoen parkean, gimnasia egiteko gune bat eratuko nuke, bai nagusiei bai gazteei zuzendutako tresneria jarri.

4. Euskararen arnagune izateari laga dio Mendarok. Euskararen erabileraren inguruko datuak apalduz doaz urtetik urtera, eta esparru formaletan ere igarrita daude gainbehera, ikastolatik bertatik ohartarazi dutenez. Zer duzue honen inguruan esateko? Zer nolako hizkuntza-politika landuko duzue?

Kanpotik datozen nagusientzat erronka handia da euskara ikastea eta etxean ez badakite edota egiten ez badute, zaila da ume baten interesa eta ardura piztea. Horregatik, hasteko, umeei zuzendutako errefortzu eskolak eskaintzea proposatuko nuke, ezagutza sendotu eta euskara naturaltasunez erabiltzen has daitezen.

Nagusiei ere ikasteko aukera eman behar zaie, baina euren premietara egokituta. Euren helburua ez da titulua ateratzea izango, egunerako bizimoduan erabiltzen dugun hizkuntza ikastea bazik, eta erakarri nahi baditugu, hori eskaini behar da. Horregatik, zergatik ez plazak eta udal zerbitzuak erabili? Interes horrek ingurua kutsatuko lukeelakoan nago, jende gehiago euskaraz egitera animatuz.

Bestetik, adibidez, lagungarria delakoan, hainbat ekitaldi euskara hutsean antolatzen dira, eta ez dakitenek kartela ere ezin izaten dute irakurri; nola joango dira bada gero euren familiarekin? Eta joaten direnean keinu bat ere egiten ez badiegu ongietorriak direla jakin dezaten... nola sentituko dira? Euskararen alde antolatzen ditugun ekimenetan oso endogamikoak garela pentsatu izan dut askotan, baina aldi berean,

neurria hartzea oso zaila dela ere badakit.

Dena den, euskaldunen artean ere zenbat aldiz ikusi eta entzun ditugun nagusiak euren artean gazteleraz berbetan eta umeei euskaraz egiteko esaten? Kontzientzia kontua ere bada, eta agian, jarrerak aldatzeko arreta jarri behar da herri mailan aipatzen duen arrisku horretan. Horregatik, jatorri, ibilbide, iritzi, adin... ezberdinetako jendearen ardura pizten asmatu behar du Udalak, eta gero,

elkarrekin hausnartu, espermentatu, saiatu.. egoerari buelta eman arte.

5. Mendaroko herrigunera sartzeko ate bakarra dago: Zubi Berria, eta bada herritarren kezka bat. 2009an, EAJ-ren agintaldian, bigarren zubi bat egiteko proiektua aurkeztu zuen Udalak. Programatik kendu zuen EAJk berak hurrengo legegintzaldian, eta asmoen artean aipatu zuen EHBilduk 2011n, alkatetza lortu berritan, baina ez da proiekturik gauzatu. Honen inguruko ekinbiderik aurreikusten du zuen alderdiak?

Esan bezala, halako obra bat ez da Udal baten ardura bakarrik. Aldundia eta Jaurlaritza ere hor daude, baina zergatik ez inguruko herriei ere laguntza eskatu? Zer pasako litzateke zubi hori hondatu eta ospitalera joateko biderik gabe geratuz gero? Eta zer egin beharko lukete lantegietako beharginek lanera sartzeko hortik pasatzerik ez balute? Deban gertatutakoa oso gertu dugu, eta horrek ere ezinezkoa ematen zuen orain dela urtebete.

Obra horrek aurrekontu handia eskatzeaz gain, aliantzak eta konpromisoak ere behar ditu; eta horiek lortzea bada Udalaren ardura. Telefonoa hartu, ateak jo, bilerak eskatu... aurreko legegintzaldian ere horretan saiatuko zirela pentsatu nahi dut, baina lortu arte eutsi beharra dago obra horren garrantziaz den-denak konturatu arte.

6. Zer da herrigintza zuretzat?

Taldelana herritarren zerbitzura, bakoitza bere lekutik abiatuta, baina batera. Helburu amankomunak lortzeko konfidantza, errespetua, aniztasuna, konpromisoa, erantzukizuna... behar dira, eta beti-beti besteen lana baloratzea eta eskertzea; ezberdinak izatea mesederako dela inoiz ahaztu barik.

7. Komertzio txikiak bizia ematen dio herriari. Dendak itxi dituzte azkeneko urteotan. Zer egingo du zure alderdiak herriko merkataritza eta ostalaritzari eusteko?

Erreleboa sustatzeko Jaurlaritzak eta Aldundiak eskaintzen dituzten formulak jorratu eta Udalaren kontura ekonomikoki hobetuko nituzke, jubilatzeke dauden dendari eta ekintzaile berrien harremanak hobeto bideratzeko; negozioen jarrai-



Mari Jose Telleria

PSOE



pena bermatzeari begira. Gainontzeko guztiei erakunde horiek eta beste batzuk egiten duten lana ezagutarazteko modua bilatuko nuke. Denda berriak zabaltzeko diru-laguntzak ematea ere oso aproposa ikusten dut. Zerbitzuak behar dira auzo guztiak biziberritzeko, eta bai ospitalera bai enpresetara jende asko etortzen da Mendarora egunero-egunero. Horiek herrira hurbiltzeko formulak ere egongo dira beste nonbait asmatuta eta kopiatzeko modukoak. Azken finen, bertako populazioarekin eta etortzera derrigortuta dauden guzti horiekin bezero poltsa handi bat dago zaindu eta erakarri behar dena.

Baina lehenengo eta behin, elkarteak sustatu nahi dituzte; modu horretan askoz ere errezagoa delako ekimenak (bonuak, zozketak, publizitatea, formazioa...) burutzea eta dinamika egonkor bat eratzea, bai bezeroei bai erakundeei begira. Ostalaritza eta merkataritza osagarriak dira, eta ezinbestekoa dute elkarrekin aritzea.

8. Zerrendak osatzeko zailtasun agerikoak izan dituzte alderdiek. Alkatea dago gaur liberatuta. Zer planteamendu dakar zure alderdiak legegintzaldi berrirako?

Azken legegintzaldi honetan PSE-EEK ez du ordezkariarik izan Mendaroko Udalean eta ez daukat horri buruzko informazio zuzenik, beraz momentuan ezin dut ezer aurreratu. Zalantzarik ez daukat lan handia izango dela udaletxean eta ezinezkoa denen premiak asetzea, baina oraindik ezin dut esan zinegotzi gehiago liberatzea irtenbiderik egokiena den, ezta kontraktorik ere.

9. Badira gai batzuk, urtez urte errepikatzen direnak, baina gauzatzen ez direnak. Azpilgoetako autobus geltokiarena da bat. Zein lehentasun du gai honek zuentzat?

Zubiarekin gertatzen den moduan, honek ere ez du konponbide errazik eta horregatik, zeresana eta eskumena duten erakunde eta departamentu guztiak batu eta elkarlanean jarri beharra dago berriz. Bestela, orain arte bezala, batetik bestera joango da pilota pasatzen istripu larri bat gertatu arte.

10. Udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua da. Zertan inbertituko duzue dirua?

Kiroldegi txiki bat eraikiko nuke, Azpilgoetan ahal izanez gero. Jendeak gero eta gehiago praktikatzen du kirola eta Mendaron ez dago toki estalirik ekimen gidatuak eskaintzeko, taldean aritzeko edota norberak bere erara erabiltzeko, bizikleta eta beste-lako fitness makinekin hornituta. Halako guneak belaunaldi ezberdinek konpartitzen dituzte eta norbanakoak aktibatzeak bakarrik ez, herria dinamizatzeak oso toki aproposak ere bada.

Gaur egun halakoak praktikatzeak inguruko herrietara joan behar izaten dute mendarotarrek eta esfortzu handia suposatzen du horrek, bai denbora aldetik eta baita diru aldetik ere. Gainera, kirolaria bezeroa ere bada, eta bidean dagoela, beste gauza asko egiteko aukera topatuko du hemendik kanpo, Mendaroko denda eta tabernen kalterako.

Bestetik, lehen ere aipatu dudan moduan, Mendarok oso ibilbide ederrak ditu inguruan eta horiek balioan jartzeari inportantea deritzot, bai bertakoentzat bai kanpotik bisitan datozkigunentzat. Naturarekiko atxikimendua gero eta handiagoa da; horregatik da hain inportantea baserriak zaintzea, eta baserriak esatean, baserritarra nahi dut esan; baserritarrei esker mantentzen direlako mendiak-eta. Esparru horretan diru gehiago inbertituko nuke.

11. 2009an sortu zuen estreinako Berdintasun Plana Udalak, bi urterako. Gabezi edo hobetu beharreko hainbat puntu jaso zituzten plan hartan, besteak beste: ginekologia eta pediatría zerbitzuak herrian sendotu eta egonkortu beharra, kaleko izendegian emakume-izen gutxiegi izatea, genero-ikuspegia landu beharra Udalean, genero rolen eta estereotipoen inguruko kontzientziazio saioen premia... 2019an gaude, herriaren ezaugarriak aldatu dira (besteak beste, askotarikoagoa da gaur), baina haietako gabezi asko gabezi dira gaur ere. Zein politika sustatuko duzue alkatetza lortuz gero?

Plan berri bat landu beharko da guztion parte-hartzearekin, ezinbestekoa baita hausnarketa konpartitzea eta denon ekarpenak jasotzea. Lana planifikatzeko, baliabideak antolatzeak, laguntza bilatzeko... dokumentu bat izatea behar-beharrezkoa da, eta ahalik eta azkarren plan berri bat izaten saiatuko gara hasiera-hasieratik.

Berdintasunaren aldeko borrokan, sozialistok lan mundua eta hezkuntza esparrua estrategikoak direla uste dugu. Lan munduan ematen diren egoera diskriminatzaileak normaltzat jotzen ditugu askotan, horiek aldatzea gure esku egongo ez balitz moduan, eta ez da horrela. Berdintasun planak, erakundetan ezezik, enpresetan ere behar-beharrezkoak dira, eta Mendaroko industrian horiek sustatzen ahaleginduko gara. Baina eraikita dauden sinismen eta egiteko moduak zalan-tzan jarri, eta gero eta indar handiagoarekin desegiten joateko, ume eta gazteekin lan egitea ezinbestekoa da. Horregatik, eskolan, ludotekan, liburutegian... berdintasunaren aldeko programak eta ekimenak txertatzeko modua bilatuko dugu, eta adin txiki-koen bitartez nagusiengana helduko gara.

“Bai ospitalera eta bai enpresetara jende asko etortzen da, eta horiek herrira hurbiltzeko formulak kopiatu behar dira”

Botoi bidezko semaforoa eskatzen dute Arriagako bizilagunek



Mireya Cearsolo Arriagako bizilaguna 2017tik ari da eskatzen botoidun semaforo bat errepidea gurutzatzeko. Autobusa hartzeko derrigorrez gurutzatu behar izaten dute errepidea bizilagunek, eta bere iritziz, bizia jartzen dute jokoan egunero. Udalera jo zuten, eta segurtasun neurri batzuk hartu zituzten arren, auzotarren iritziz ez dira nahikoak. Udalak esan zion 634 errepidea Foru Aldundiko kompetentzia zela, eta hara ere jo du Cearsolok, baina gune horretan semaforoa jartzea teknikoki eta ekonomikoki ez dela errentagarria erantzun diote, egunean batez bestez 16,5 lagunek hartu zutelako autobusa geltoki horretan (2017ko datuak). Arartekoarengana ere eraman du gaia Cearsolok, baina harek ere ez du babestu, eta ontzat eman ditu Foru Aldundiak gune horretan semaforoa ez jartzeko eman dituen arrazoiak. Haserre dago Cearsolo, eta esan du Elgoibar ez dela Mercadonan bukatzen, aurrerago dagoela Arriaga auzoa eta herriko erdigunean bizi direnen eskubide berberak dituztela beraiek ere. "Gutxi garelako? Eta zer! Gure biziak berdin-berdin balio du". Cearsolok Udalari eskatu nahi dio Foru Aldundian indarra egiteko, azken batean Udalaren egitekoa delako herritarren segurtasuna zaintzea.

Txakur batek haginka egin dio gizon bati

Artzain alemaniar arrazako txakur batek hortzaka egin zion Elgoibarko gizon bati, eta ezbeharra salatu zuen Udaltzaingoan. Anbulategi inguruan gertatu zen, maiatzaren 1ean. Txakur jabeak autoaren maletategiko atea zabaltzeaz bat irten zen txakurra kanpora, eta une horretan hantxe parean zegoen gizonetzkoaren gainera salto egin zuen. Sabel inguruan eragin zizkion zauriak, eta babesteko erabili zuen eskuan zazpi puntu eman behar izan zizkieten. Joan zen barixakuan gizonetzkoa ondoezik sentitu zen, eta Mendaroko ospitalean ingresatu zuten. Sabel inguruko zauria infektatuta zeukala esan zioten, baina medikuek ez diote ziurtatu bere ondoezak zauri horrekin lotura duenik. Astelehenean jaso zuen sendagiria.

Sei lanpostu betetzeko deialdia egin du Udalak

Elgoibarko Udalak sei lanpostu betetzeko deialdia egin du, Lanbiderekin elkarlanean. Eginkizun anitzeko operariorako hiru lanpostu, arkitekto tekniko, arkitekto edo obra publikoetako ingeniari tekniko, edo portu eta kanalen ingeniari lanpostu bat eta administrazio laguntzailerako bi lanpostu. Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2019ko diru-laguntzen barruan, Elgoibarko Udalak guztira 66.556,49€ jaso ditu. Lanpostu hauek izena eman nahi dutenek Elgoibarko Lanbideko egoitzan egin dezakete.

2019-2020 ikasturterako matrikulazio epea zabalik Ameikutz musika eskolan

Mendaroko Ameikutz musika eskolak jakinarazi du datorren ikasturterako matrikula egiteko epea zabaldu dutela. Bide batez, ikasturte amaierako kontzertuen data jakinarazi dituzte: Datorren asteartean piano emandakiak egingo dituzte, eta eguaztenean gitarra joleen kontzertua. Hilaren 28an trikitixa eta biolin-joleen saioa izango da, 29an txistu eta soinu joleena eta ekainaren 3an perkusioko bakarlariak emango dute saioa. Emaldi guztiak San Agustingo areto nagusian izango dira.

Uda artistikoa antolatu dute Mendaron

Mendaroko Mandira Studio elkarteak uda artistikoa izeneko udalekuak antolatu ditu, ekainaren 24tik uztailaren 19ra. Sormena landuko dute, material birziklatuekin eskulanak eginez, aire librean margotuz eta naturarekin harremanetan jolastuko dute. Euskaraz eta ingelesez emango dituzte ikastaroak. Saiok goizez izango dira, 9:30etik 13:00etara. Nahi duenak, zaintza zerbitzua ere izango du aukeran, 7:30etik 9:30era. Ikastaro osoa nahi ez duenak asteka ere eman dezake izena. Udalekuaren prezioa asteko 60 eurokoa da, eta zaintza zerbitzua, berriz, 15 euro orduko astean. Informazio gehiagorako 650 988 799 (Marian) telefonora deitu behar da.



Zapatuan labankadaz hil zuten Pablo Acuña Albirren hilotza Nikaraguara eramateko dirua batzen hasi dira senide eta lagunak

Zapatu goizaldean izan zen eraso Antonio Arrillaga kalean, Elgoibarko Itzulirako izena emandako dozenaka mendizale seiretarako Kalegoen plazara hurbiltzen ari ziren sasoi hortantxe. SOS Deiak larrialdi zerbitzukoek 5:50ak aldera jaso zuten abisua. Gizonezko batek labanaz eraso zion bikote bati, eta zaurituetako bat, Pablo Acuña Albir 36 urteko gizona, eraso jasan zuen lekutik metro gutxira, Giza Eskubideen Parkeko atari baten aurrean jausi zen hilotz, Usua tabernatik gertu. Albirren bikotekidea, 37 urteko emakumea, lekuan bertan artatu zuten larrialdi zerbitzuetakoek, baina Mendaroko Ospitalean ingresatu zuten gero (igandean jaso zuen senda-agiria). Erasotzaileak, berri, ihes egin zuen, itzulirako izena emandako jende-oldean babestuta, eta Irukurutzetatik Sargoateko anoa postua bitartean atxilotu zuten. Mendizaleen kontrako norabidean Sargoateetik bere bila abiatu ziren bi udaltzainek atxilotu zuten, mendizaleek egindako ohartarazpenei esker. Karakaten gora, praka bakerotan eta kamisetarik gabe ustez edandako itxuran zihoan gizon bat ikusi zutela ohartarazi zuten mendizaleek.

Halakoetan ohi legez, berehala zabaldu zen albistea Elgoibarren, bai eta informazio nahasi asko ere. Egoeraren larriak hala eskatuta, Elgoibarko Udalak Bozeramaileen Batzordearen bilera egin zuen eguerdian, eta orduerdi aurretik zabaldu zuten adierazpen instituzionala. Gertatutakoa salatu eta biktimen senide eta lagunei elkartasuna agertu zieten oharrean, eta elkarretaratzerako deitu zituzten herritarak astelehenerako, Kalegoen plazan. Gertakariak izugarritzko oihartzuna izan zuen komunikabide handietan, eta erasotzaileak zauritutako emakumearekin harreman sentimentalen bat izan zuela ere zabaldu zuten hainbatek. Hilda-koaren arrebek, baina, horren berririk ez zutela nabarmendu zuten, eta astelehenean bertan, uste guztiak uxatu zituen Ane Beitia alkateak, komunikabideei egindako adierazpenetan. Beitiak



esan zuen hilketak ez ziola genero indarkeria kasu bati erantzuten eta homizidio kasu gisa aztertzen ari zirela Ertzaintzan. Beitiak adierazpen horrek egin zituen egun berean galdekatu zuen epai-leak erasotzailea, 35 urteko gizona, eta lerro hauek idazteko unean, Martuteneko kartzelan zuten preso, epaiaren zain.

Elkarretaratze jendetsua eta diru bilketa kanpaina

Astelehen iluntzerako elkarretaratze isila antolatu zuen Elgoibarko Udalak eta jende ugari egin zuen bat deialdiarekin. Elkarretaratzean ziren Pablo Acuña Albirren senide eta lagunak ere. Albirren gorpua sorterrira, Nikaraguara, eramane nahi du familia, eta horretarako, diru-bilketa kanpaina hasi dute, 8.000 euro behar dituztelako. Elgoibarko lokutorioetan jarri dituzte dirua batzeko kutxak. Ertzaintzak, bestalde, ohar bat zabaldu zuen Morkaiko Mendizale Elkartearen bidez, eta zapatuan, irteera puntutik lehenengo anoa postura bitartean ateratako argazkiak jefinvesic_gip@ertzaintza.eus posta elektronikora bidaltzeko eskatu zuen.

Galiziarren jaiak ospatuko dituzte asteburuan Maalako parkean

Gaur hasi eta domekara bitartean, Dias Das Letras Galegas jaiak ospatuko dituzte herrian, Anton Fraguas historialari, filosofo, antropologo eta idazlearen omenez. Gaur arratsaldean inauguratuko dituzte jaiak, Maalako parkean. Udaleko agintariak batuko dira ekitaldian 19:00etan, eta segidan Galizako muskuiluen dastaketa egingo dute. Horrez gain, Galiziako produktu tipikoak dastatzeko aukera ere egongo da. Musika giroa, Canela Orkestrak jarriko du, iluntzean eta gauean. Biharko, berriz, egun osoko egitaraua prestatu dute. Galiziako jaki tipikoak dastatzeko aukera egongo da goizez zein arratsaldez, eta Galiziako dantza tradizionalak ikusteko aukera ere egongo da, Corxa Airiños Galegos Doce Albor taldearen eskutik. Goizean kalejiran irtengo dira, eta arratsaldean dantza ekitaldia egingo dute Maalako parkean. Zapatu gauerdian ez da faltako urteroko queimada dastaketa. Jaiak amaitzeko, Galiza Kultur Etxean bazkalduko dute domekan.



Iñaki Goitia saritu dute Madrilgo Idazleen eskolak eta Ser Irratiak antolatutako mikroipuin lehiaketan

Iñaki Goitia Mendaroko liburutegiko liburuzainaren *El imbécil* mikroipuin saritu dute Madrilgo Idazleen Eskolak eta Ser Irrati kateak antolatutako Relatos en Cadena mikroerrelatoen lehiaketan. Astelehenera ostegunera egiten dute lehiaketa asteko onena aukeratzeko, eta 27. asteko onena izan da berea (1.098 ipuin aurkeztu ziren guztira). Maiatzeko hiru astetako onenetatik hilabeteko onena apartatuko dute maiatzaren 27an, eta horretarako, behar-beharrezkoa du publikoaren babes, epaimahai teknikoaren iritziaz gain herritarrek emandako boto-kopurua hartzen dutelako kontuan. Maiatzaren 20an (astelehena), 20:00etan, zabalduko dute botoa emateko aukera eta maiatzaren 27ko 11:00ak arteko epea egongo da. Botoa emateko, honako link honetan sartu behar da: <https://escuela-deescritores.com/concurso-votacion-rec/>

Txomin Mujika omendu dute Guardiako Gaita-jotzaileen Egunean

Guardiako Gaita-jotzaileen Eguna izan zen zapatuan, eta aurtengo edizioan Txomin Mujika dultzainero elgoibartarra omendu dute. Gaitero alardearen ostean egin zioten omenaldia, eta Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eman zuten ondoren, gaita-jotzaileekin batera. Egunari hasiera emateko Dianan ere hartu zuten parte Elgoibarko Bandak. Gaita-jotzaileen Eguna 1975eko maiatzaren 11n sortu zen, Jesus Martinez (Jimeleo) herriko gaita-jotzaile nagusiari omenaldia egiteko, eta aurtengoa 45. edizioa izan da.



Eguaztenean inauguratu zuten Taupadaren 40. urteurreneko argazki erakusketa

40 urte antzerkiaren bihotzean argazki erakusketa jarri du ikusgai Taupadak, Kultur Etxeko sotoan. Manu Sanchez argazkilari elgoibartarrak urteurreneko ekintzetan eginiko erretratuekin osatu dute erakusketa, eta hilaren 24ra arte egongo da ikusgai, 18:30etik 20:30era. Inaugurazio ekitaldian performantzea ere egin zuten Taupadako hainbat lagunek. Hilaren 25erako, aldiz, bazkaria antolatu dute, eta txartelak salgai daude dagoeneko. Jai Alai eta Lanbroa tabernetan. Helduek 20 euro ordaindu behar dituzte, eta 12 urtetik beherakoek, 10 euro. Bazkal aurretik, 12:30ean, Antzerki Tantak eskainiko dituzte kalean zehar, eta bazkalostean, antzerkia egingo dute Maalan.





700 lagun inguru batu zituen Morkaikoren Egunak

Mendizaleen festa eguna izan zen joan den zapatua Elgoibarren, eta mendizalez gainezka egon ziren herria inguratzen duten tontorrak eta mendi bideak. Guztira 350 lagunek amaitu zuten Elgoibarko Mendi Itzuliaren ibilbidea, 38 kilometrokoa. Gaztetxoaren artean mendizaletasuna sustatzeko sortu zuten Itzulitxoan ere handia izan zen partea hartzea. 332 lagunek egin zuten 12 kilometroko mendi buelta, tartean 160 ume inguruk. Ume eta gaztetxo horietako askok jaso zuten gero domina bat Finalista Eguneko domina banaketa ekitaldian, Kalegoen plazan, urtean zehar igotako mendiengatik. Txitxibildiak taldeko emakumeen laguntza izan zuten Morkaikoko kideek dominak banatzerakoan. Argazkiak eta bideoa barren.eus/en

Lizarrolara egindako itzuliarekin amaitu zuten Mendaron txirrindularitza ikastaroa



Mendaro Ikastolako Arno Guraso Elkartek eta Elgoibarko Lagun Taldeak txirrindulari ikastaroa antolatu dute aurten, eta zapatuan eman zioten azkena, Lizarrolara egindako itzuliarekin. 50 lagun baino gehiagok parte hartu zuten zortzi bat kilometroko irteeran. Argazki bilduma barren.eus/en.

Mugertza krosa hirugarren postuan da Espainiako krosen sailkapenean



Mugertza krosa hirugarren postuan dago Espainiako Atletismo Federazioak (RFEA) argitaratu duen krosen urteko sailkapenean, Burgos eta Sevilla moduko hiriburuetan antolatzen dituzten krosen atzetik. Orain dela 29 urte hasi ziren sailkapen hori argitaratzen, eta Mugertza kroseko antolakuntzak inoiz baino puntu gehiago jaso ditu aurten, 3036,75 puntu, besteak beste, Mintxetatik igaro ziren atletek sekulako emaitzak lortu zituztelako gero Danimarkan jokatu zen Munduko Kros Txapelketan. Burgosen jokatzen den Atapuercako krosa dago lehen postuan, 5.492 punturekin. Sevillan jokatzen den Italicaco krosa dago bigarren, 3.897 punturekin.

Jubenilen txirrindulari lasterketa jokatuko dute domekan

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatutako Elgoibarko Hiria Saria txirrindularitza lasterketaren 39. ekitaldia jokatuko dute domekan, maiatzaren 19an. Mintxetatik irtengo dira txirrindulariak 16:00etan, eta 88 kilometroko ibilbidea osatu ostean, helmuga ere Mintxetan izango da. Proba 18:10ak inguruan bukatzea aurreikusten dute antolatzaileek. Ampo taldeko Xabier Berasategik irabazi zuen iazko lasterketa.

Ixa Rodriguezek profesional mailako laugarren garaipena lortu du



Sei minutuko sei round jokatu zituzten Ixa Rodriguez soraluzearrak eta Oksana Romanova ukrainarrak, aurreko zapatuan, Olaizaga kiroldegian egin zuten boxeo borrokaldian. Ez zen KORik egon eta epaileek euskaldunari eman zioten garaipena, 58-56 puntuazioarekin. Hortaz, alde laburratigatik izendatu zuten irabazle Ixa Rodriguez. Profesionaletan lortzen duen laugarren garaipena du, lau borrokaldi egin eta denak irabazi baititu orain artean. Sorabox taldeko boxeolariak zaleen babesa izan zuen eta giro polita sortu zen Bilbotik ekarri zuten ringaren bueltan. Amateur mailako bost boxeo borrokaldi ere egin zituzten boxeo jaialdian. Udal Kirol Patronatuak antolatu zuen boxeo jaialdia, Elgoibar Europako Kirol Herri izendatu dutela ospatzeko. Argazkiak: *barren.eus*

Astigarraga Gys Sportek Gipuzkoako Kopa irabazi du, eta Arilan taldeak Udaberri Kopa

Denboraldiko azken txanpan dira Sanloko hainbat talde eta aurrez eginitako lanaren etekina jasotzen ari dira horietako batzuk. Euskal Ligako Astigarraga GYS Sport taldeak Gipuzkoako Kopa irabazi du, Bera Berari Donostian jokatutako partidaren 31-24 irabazita. Beste titulu bat izango dute jokoan asteburuan, Mugazgaindiko kopa jokatuko baitute Atarrabian. Jubenil nesken Arilan taldeak ere titulu bat irabazita amaitu du denboraldia. Udaberri Kopa irabazi dute Andoainen jokatutako partida estuan Leizaran taldeari 23-24 irabazita.



Azkenik, senior emakumezkoen Lauko taldeak Kopako finala jokatuko du, sailkapen ligaxkan bere multzoko lehen postua lortu eta gero. Oraindik ez dakite nor izango duten aurkari eta finala non jokatuko duten ere ez, hurrengo asteburuan jokatuko baitute azken jardunaldia beste multzoko taldeek.



Udako kirol ikastaroen eskaintza

Udako kirol ikastaroetan izena emateko epea zabalik dagoela jakinarazi du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Ikastaroak ekainaren 24tik uztailearen 19ra izango dira. Aerobik Txiki (6-10 urte), Zumba-Krosfit gazteak (11-16 urte), Spinning gaztea (11-16 urte) edo igeriketa ikastaroetan parte hartzea nahi dutenek, ekainaren 18ra arte eman dezakete izena Olaizaga kiroldegian edota Mintxetan. Igeriketa ikastaroan helduek ere izango dute parte hartzeko aukera.

Kirol Eguna izango dute bihar Mendaron

Era guztietako jolas eta kirol parte hartzaileetan aritzeko aukera izango da Mendaroko Kirol Egunean. Bihar, hilak 18, egingo dute, 10:30etik 13:30era bitartean, Herriko Enparantzan. Eguraldiak laguntzen ez badu Ikastolako patioan egingo dutela jakinarazi du Arno Guraso Elkarteak. Mendaroko haur guztientzako ekintza da, HH2tik hasi eta LH6ra artekoentzat.



LANA.....
Eskaerak

Esperientzia duen zainzaile euskalduna eskaintzen da adinekoak eta umeak zaintzeko. Tituluna. (Elena Agirre).
☎ 943 742 330 / 660 511 781

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Gauzez ere bai.
☎ 632 637 815

Umeak zaintzeko prest nago. Mendarorria naiz.
☎ 688 664 127

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketarak ere egingo nituzke. Esperientzia daukat. ☎ 686 077 564

Umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 531 623

Umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. Esperientzia daukat. ☎ 622 134 310

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzez.
☎ 688 714 388

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia.
☎ 611 306 391

Garbiketarak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. Titulua daukat. ☎ 626 407 923

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat umeak eta adinekoak zaintzen eta garbiketara lanetan. ☎ 681 310 989

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia. Gauzez edo asteburuetan ere lan egiteko prest.
☎ 632 893 515

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Gauzez ere bai.
☎ 643 772 326

Umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 576 630

Umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago.
☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarak egiteko prest nago. Ordupegi malgua daukat.
☎ 612 289 330

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 632 862 059

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago.
☎ 643 464 072

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzez, etxean zein ospitalean.
☎ 602 355 271

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain laguntzaile titulua eta esperientzia daukat. ☎ 631 200 936

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 640 821 269

Lan bila nabil. Esperientzia daukat adinekoak eta umeak zaintzen eta etxeko lanak egiten. ☎ 602 811 319

Eskaintzak
Elgoibarko ileapaindegi batean lanaldi erdiz lan egiteko pertsona behar da.
☎ 943 246 225 (Nerea)

Pertsona euskalduna behar da arratsaldez umea zaintzeko.
☎ 678 000 819

Estetikaria behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Bidalri curriculuma: olamarsan@gmail.com

Langile euskalduna behar da elgoibarko denda batean lan egiteko. Interesatuak curriculuma bidali mesedez: buruagaltzen@gmail.com

ETXEBIZITZAK.....
Estudioa alokatzen dut Elgoibarren. Altzariekin.
☎ 669 665 252

Gela bakarreko etxebizitza alokairuan, erosteko aukerarekin. Elgoibarko erdigunean. ☎ 660 042 159

Etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 627 230 784

GARAJEAK.....
Garaje itxia alokatzen dut Trenbide kalean. Kotxe batentzat lekua dauka.
☎ 670 406 748

LOKALAK.....
Lokala salgai. Olaso 6, 66-4 pabilioia. 132,84 m² ditu, 16,5 x 8 metroko azalerarekin. 7 metroko altuera du, bulego bat eta komuna. ☎ 943 743 628

KINTOAK.....
Aurten 50 urte beteko dituzten elgoibartarrek ospakizun berezia egingo dute urriaren 26an Eibarren. Antolatzaileek egun hori gordetzeko eskatu diete 1969an jaiotakoei. Xehetasunak aurrerago zehaztuko dituzte.

1964ko kintoek bazkaria egingo dute ekainaren 29an Sigma jatetxean. 12:30ean batuko dira udaletxe auzian, 12:45ean argazkia ateratu eta 13:00etan luntxa, Tantakan. 65 euro ordaindu behar dira, ekainaren 14rako: ES17 3035 0007 24 0071137320 (Labor Kutxa).

49koen kinto bazkaria ekainaren 1ean, Sigma jatetxean. 55 euro ordaindu behar dira kontu korronte honetan, maiatzaren 30erako: ES24 2100 4168 7521 0035 0521 (La Caixa). 13:00etan argazkia, elizan eta gero luntxa Ibai Ondo jatetxean. Bazkaria, 14:30etan.

1959ko kintoen bazkaria ekainaren 1ean, Sigman. 13:00etan, luntxa Txarridunan, eta segidan, argazkia. Bazkaria, 15:00etan. 70 € sartu, hurrengo kontu korrontean, maiatzaren 25erako: ES09 3035 0007 250071137124 (Labor kutxa).



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Entidad Pública Administradora de Recursos Humanos

ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749


660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure etxerako ura dakarren hodia ihes bat izan dugu komunitatean, eta eskailerako tranpalera isuri da ura. Jakin nahiko nuke zeini dagokion hodia konponetzea.

Zuk esandakoaren arabera, isuria zuen etxetik kanpora izan da. Hortik ondoriozta dezakegu hodi horrek zuen etxeko loturara aurreko zatian izan duela zuloa.

Beraz, egiaztatzen bada hodia zuen etxe barruko loturara aurreko zatian zulatu dela, komunitateak ordaindu beharko du konponketa, elementu komun batetaz ari garelako.

AHOLKUA: Orokorrean, erantzukizuna komunitatearena edo partikular batena den jakitzeko matxura gertatu den lekua zehaztu behar da, hodi nagusitik partikularrera arteko zatian non izan den zehazki alegia. Praktikan eta teknikoki nahikoa erraza da hori jakitzea. Edozein kasutan, profesional batek zehaztuko dizu matxura non izan den eta horren arabera zehaztuko da gero nori dagokion konponketa gastuak ordaintzea.






Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Sabin**, asteartean 10 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztion partez.




Zorionak, **Laia**, gaur 3 urteko bete dituzulako. Muxu asko amama, izeba eta, bereziki, Sararen partez.



Zorionak, **Garazi**, polit hori, maiatzaren 14an 10 urte bete zenituelako. Pila bat maite zaitugu. Muxu bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Naroa**, astelehenean 13 urte bete zenituelako. Muxuak familiako guztion partez.



Gure futbolariak 5 urte handi! Zorionak, **Eneko**, etxeko denon partez.



Zorionak, **Elaia!** Ondo ospatu zure eguna.



Zorionak, **Asier**, gaur 2 urte bete dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Elene**. zure lehen jaunartzeagatik. Muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **bikote**, zuen ezkontzako 60. urteurrenean. Besarkada handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **bikote**, aste honetan urteak bete dituzulako. Milaka patxo etxeko guztion partez.



Oraingoan Gipuzkoako Kopako txapelidunak! Zuetako askorentzat ibilbide zoragarri hau amaitzen ari da, baina guraso guztion partez esan nahi dizuegu emozioz eta harrotasunez beteriko urteak izan direla. Denontzat (bidean geratu direnentzat barne), besarkada bero bana, muxu goxo bana eta zorte on hemendik aurrera!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€ Argazki bikoitza: 7€
Hirukoitza: 9€ Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€ Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€ Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



Rosita Aranguren Urkidi

"Beraseta"

2019ko maiatzaren 7an hil zen Markina-Xemeinen, 79 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure bihotz handia eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.**

Familiakoak

17 BARIXAKUA

17:00 Kiribil. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

18:30 Eskuz tailerreko ikasleen lanen erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

20:30 'Tosca' opera, aurrez grabatutako bertsioan. Herriko Antzokian.

18 ZAPATUA

10:30 Kirol Eguna, Mendaron. HH2tik LH6ra arteko umeentzat. Herriko Enparantzan. Euria egiten badu, ikastolako partioan.

11:00 Makina Erremintaren Museoa, zabalik. Museoen Nazioarteko Eguna denez, zabalik egongo da museoa. Gemma Monrealen ikasleek museoan bertan marraztutako margolanak egongo dira ikusgai. Doan.

19 DOMEKA

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika.

1. *Pas redoblé* (C. Saint Saens /mold. I. Urkizu).

2. *Batman* (Danny Elfman)

3. *Concertino for piccolo** (S. Pascal)

4. *Figuration for sakuhachi* (T. Kushida)

*Piccolo bakarlaria: Iñaki Gurrutxaga, Bilboko Udal Musika Bandaren bakarlaria

16:00 Jubenil mailako txirindulari lasterketa. Lagun Taldeak antolatuta, irteera eta helmuga, Mintxetan.

20 ASTELEHENA

19:00 Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. Kalegoen plazan.

22 EGUAZTENA

16:30 Adinekoen ererikoak sahiesteko tailerra. 65 urteik gorakoentzako. Jubilatuen Biltokian.

17:30 Ikasurte bukaerako bertso jaialdia. Herri Eskolako eta Ikastolako 4. mailakoak.

19:00 Ikasurte bukaerako bertso jaialdia. Herri Eskolako eta Ikastolako 5. mailakoak.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Identidad borrada'
18 zapatua: 19:00 / 22:15
(VOS)

19 domeka: 19:00
20 astelehena: 21:30

GALIZIARREN JAIAK

Maiatzak 17, 18 eta 19

17 BARIXAKUA

19:30 Inaugurazioa, Maalako parkean.

Ondoren, Galizako muskuiluen dastaketa.

20:00 Dantzaldia, Canela orkestrarekin.

23:00 Dantzaldia, Canela orkestrarekin.

18 ZAPATUA

11:00 Galizako produktu tipikoen dastaketa.

13:00 Corxa airiños galegos doce albor taldearen kalejira.

17:00 Corxa airiños galegos doce albor taldearen ekitaldia, Maalako parkean.

20:00 Dantzaldia, Canela orkestrarekin eta Galizako produktuen dastaketa.

23:00 Dantzaldia, Canela orkestrarekin.

00:00 Queimada dastaketa.

19 DOMEKA

11:00 Galizako produktu tipikoen dastaketa.

15:00 Bazkaria, senide eta agintariek, Galiza Kultur Etxearen egoitzan.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
17 BARIXAKUA	18 ZAPATUA	19 DOMEKA	20 ASTELEHENA	21 MARTITZENA	22 EGUAZTENA	23 EGJENA	24 BARIXAKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez/ *Yudego	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Orvesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria

*** Fernandez:**
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

*** Ibañez:**
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

*** Orvesagasti:**
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauetz: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498



Jose Zabala Larrañaga

2019ko maiatzaren 13an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure oroimenak indartzen gaitu.




I. URTEURRENA

Angel Urbieta Ansola

"Olia"

2018ko maiatzaren 20an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez
I.urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 19an, 12:30ean,
Mendaroko Azpilgoetako elizan. Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.




I. URTEURRENA

Agustin Makazaga Martija

"Zidar"

2018ko maiatzaren 16an hil zen, 88 urte zituela.
Haren oroimenez, I.urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzaren 18an,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.



V. URTEURRENA

Lolita Mondragon Sanchez

2014ko maiatzaren 17an hil zen.
Haren oroimenez V. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzaren 18an,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.




I. URTEURRENA

Joxe Mari Isasti Zulaika

"Aizarna"

2018ko maiatzaren 17an hil zen, 89 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***



ELGOIBAR UBITARTE GAIN



AZKEN ETXEBIZITZAK! Ez galdu aukera hau

GUZTIAK BARNE



ETXEBIZITZA



ARMAIRUAK



SUKALDEA



PERTSONALIZAZIOA

ERAIKUNTZAN

943 316 586

 **sukia**

Zure etxean zaude **Estás en tu casa**

www.sukia.com

 **grupo
LAZKANO**

www.grupolazkano.com